# ARRASATE PRESS

Arrasate 1990eko Ekainak 22 69. zenbakia
Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

**LUIS SAGASTA "MANE": Erromeria eta dantzalekuetan barrena**




Jabier

# Garraio publikoak: eskasegi




MODELO
BERRI-BERRIA
Ford
MUGARRI

# Adi ATBren ikusle!

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau. 23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxoa eragin beharko diozu zeure aparailuari. 23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.

# 22.

k a n a l e r a

j o a n g a r a

ATB

ARRASATE TELEBISTA

**ARRASATE PRESS**

**ASTEKARIA**

**Argitaratzailea:** Arrasate Press taldea (AED) Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza, Bego Zubia

**Publizitatea eta harpidetzak:** Josune Biteri Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA Taldea.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:** J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 7.000 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

**ARRASATE PRESS**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



# Keinuen zergatikakoa

Keinuek leku garrantzitsua izan dute gizartean. Hitzen berezko adierazpenari keinuena gehitu ohi zaio, mezuaren asmoa ulergarriago eta fidagarriagoa egiteko. Keinuz beterik aurkitzen dugu eguneroko bizimodua, era guztietakoak, erlijio nahiz pagano kutsuzkoak.

Gaur goizean lehen jaunartze baten zeremonia kolektibora joan behar izan dut. Hantxe, aldare ondoan zeuden protagonistak, zenbait hilabatetan zehar irakatsi dieten erritoaren zergatikakoari aurre egiteko prest. Eta ume haiek zerakusten jarrera zintzo eta elizkoiak, arestian irakurrita nituen zenbait apunteren oroitzapena ekarri dit. Hain zuzen ere, jaunartzea egiteko gertu geneuzkan haurrak belaunikaturik eta eskuak bata besteari batuta ikustean, gaurko lerroaldi hauek gauzatu ditut nire barnean.

Betikotzat ditugun keinuek ere euren historia dute, gezurra dirudien arren, eta belaunikaturik otoitz egitea ez da salbuespena. Zutikako otoitz, besoak altxaturik edo gurutzatuta, aintzinako garaietatik Erdi Aroko azken aldirarte ematen den ohitura hedatua ei zen, adituek diotenez. Kristautasunaren hastapenetatik, belaunikaturik errezatzea ongi araututa zegoen, igandeetan eta Bazko eta Mentekosterartean belaunikatzea zeharo debekatua zelarik. Zergatik? "Alaitasun eta garaipeneko egunak direla eta, Kristorekin batera zutik, zerurainoko bidean ipintzen gara" zioen 325. urtean Nizeoko kontzilioak.

XI eta XII. mendeetan inposatu omen ziren gaur egun mendebal erlijio zeremonietan ematen diren otoitz-keinuak: eskuak batuta gerriaren mailara, hatzak luzatuta, eta belaunikapena. Lehenengo keinuak omenaldi laikoan omen ditu bere erroak eta Jainkoarekiko harreman jerarkikoa ahalbideratzen du. Esku batuak, kristau otoitzaren sinboloa dugu harrez geroztik. Eskuen keinua belaunikapenaz osatzen da, jarrera hori ezaguna zen arren, bere erabileran murriztuta geratua zelarik.

Bitxia da, ohituren aldaketa dela eta, nola ordurarte otoitz egiteko jarrera duina –hau da, zutikakoa– handik aurrera erlijio epelkeriatzat izan zen kontsideratua. Eta, horrezaz gain, alaitasuneko garaietan belaunikatzeko zen debekuak alderantzizko zentzua aldarrikatu zuen.

*Josemari Velez de Mendizabal*

*inpresio ona*

**K3**

inprimategi eta autoedizio zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HiRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO
Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko ateak
Legarreko pabiloi industriala
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK
A. ZANGITU
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

AURRERATZEKO
SF
AIZKORA
AUTOZERBITZUA
Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

Zubizarreta
OSO GAUZA
BEREZIAK
Zerkaosteta 8


## Hautaproba ("Selectividad") dela eta

Erabat haserre nago lerro hauek idazten ditudanean. Arrazoia oso sinplea da, eta irakurlearen egonarriak horrenbesterarino irauten badu, laster azalduko dut zergatia. Dakizuenez, Goi Batxilergoa eta UBI bukatzerakoan, "Hautaproba" edo selektibitatea egin behar dute zenbat fakultate unibertsitaritan sartu nahi duten ikasleek. Legeek, teorian, babesten dute "elebitasun" eskubidea, bai eta Unibertsitatean ere. Baina praktika (nola ez!) oso bestelakoa da.

Hau da egoera: ikas-bizitza osoan "D" ereduan ibili diren ikasleek badute beren 1. Hizkuntza (Euskara) eta 2.a (Gaztelera). Gauza bera, baino alderantziz, gertatzen da "A" ereduan ibili direnekin: beren 1. hizkuntza Gaztelera da eta 2.a Euskara. Eta, normala denez, bakoitzak bere 1. hizkunta prestatzen du bereziki Unibertsitatera sartzeko hautaprobaren aurrean. Izan ere, aurreko urteetan "Hizkuntza"ri zegokion froga bakoitzak egin du nahi zuen hizkuntzatan (Euskaraz zein Gazteleraz). Beraz, horrela ibili gara gu ere, beste asko bezala, euskaraz prestatzen hizkuntz froga hori. Eta... horra hor nola joan den ekainaren 6an, apenas 15 egun baino gelditzen ez direnean hautaprobaren egunerako, Hizkuntzari dagokion froga bakarrik gazteleraz egin daitekeela esaten diguten!!! Era horretara, Euskara beti 2. Hizkuntzatzat hartua da, eta oso ahul eta benetan galtzeko zorian dagoen Gaztelera, beti 1. hinkuntzatzat, behar den bezala. Eta hori "Euskal Herriko" Unibertsitate delako horretan...

Arrazoiak galdetu ditugunean, "arazo politikoak" daudela esan digute, bai eta diskriminazioa egongo litzatekeela bestea, etab. Hori bai narru sendoa!!!

*Koldo Rodriguez*
*Euskara Irakaslea*

## Etxebizitzaren problemaz Arrasaten

Lana dela eta, Arrasaten nago alokairuzko pisu bat bila. Okindegi, harategi, taberna, azokan galdetu, Portaloiko iragarki-tauletan iragarkiak jarri, inmueble-agentzietan kontsultatu (hauetako batean itxoin egin behar gainera), gizarte-laguntzailearekin elkarrizketatu, hirigintz bulegoan izan, KIUBen informazioa jaso ondoren, herrian 1.000 etxebizitza hutsik daudela jakin erazi didate.

Arrasate Press-ek dioenaren arabera, Alkatetzak egoera honen zergatiei buruzko azterlan bat egingo du, kafkianoegia. Badut gogorik inkesta horren emaitza jakitzeko.

"Boyer Dekretuari esker", etxebizitzaren espekulazioa edo prezioaren igoera errealitate bilakatu da.

Duela hilabete bat Hazienda Ministrariak RNE-1 irratian esan zuen: Espainiko 15.000 eta 25.000 biztanleko herrietan (Arrasate izan liteke) etxebizitza bat hilean 12.000 pezetatan aloka zitekeela.

Felix Pons Jauna ez da lotsatzen bera bizi den txaletaren alokairuak 500.000 pta/hileko balio duela esatean, zergapekoak ordaindurik. Normala pentsetan jako!!!

Arrasatez gain, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara, Oñati eta Gatzagan saiatu naiz.

Zein politika du Euskal Gobernuak problema honi buruz?

1978ko konstituzioa dago, etxebizitza izateko eskubidea, baina guzti errealitate bihurtu arte..

Begirunez

*NAN: 12.221.21*



# Zer deritzezu joku-makinei?



**Aitziber Retolaza (ikaslea)**
Entretenigarriak badira, baina nire ustez ez lirateke egon beharko. Noizean behin jokatzeari ondo deritzot, baina azkenean bizioa sortzen dute.



**Juan Carlos García (langilea)**
Nik ez dut horretan dirurik gastatzen. Edozein modutan, bakoitzak ikusiko du zer egiten duen.



**Francisco Morales (langilea)**
Niri ez didate kalterik egiten, jokatu nahi duenak joka dezala. Gakoa neurria hartzean dago, ardoarekin bezalaxe



**Julia Arregi (etxekoandrea)**
Nik neuk ez dut afiziorik, baina ez ditut gogoko. Ekinez gero, jendeak sartu eta sartu egiten duela uste dut.

LENIZ
AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!
ARRASATE - ESKORIATZA

MemesA
79 42 22

URRIN
Uribarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24
KAZOLATAN ESPEZIALISTAK

ESTETIKA ZENTROA
lurrundegia, opariak, jostailuak
Zarraoa
Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

BELUN taberna
Lagunarte bikaina
Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

## BEHARREZKO TELEFONOAK



**ERITETXEAK**
Arrasateko Eskualde-Ospitalea ...... 79 53 00
Igualatorioa ...... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ...... 79 39 00
(emakumeak) ...... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ...... 79 90 11

**GURUTZE GORRIA**
Bergara ...... 76 55 76

**DYA**
Antzuola ...... 76 62 91

**ANBULATORIOAK**
Arrasate ...... 79 13 57
...... 79 97 22
Oñati ...... 78 08 52
Eskoriatza ...... 79 88 96
Aretxabaleta ...... 79 74 58
Aramaio ...... (945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako anbulantziak ...... 45 87 44

**UDALTZAINGOA**
Oñati ...... 78 04 11
Bergara ...... 76 14 69
Arrasate ...... 79 14 39
Aretxabaleta ...... 79 10 52
Eskoriatza ...... 79 03 22

**ERTZANTZA**
Arrasate ...... 79 71 99

**SUHILTZAILEAK**
Udal taldea ...... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile
burua ...... 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ...... 78 28 00

**MATXURAK**
Urak (udal zerbitzua) ...... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ...... 79 05 81
Gasa ...... 900 40 05 23
...... 79 78 44
...... 79 76 78

**GARRAIOAK**
Taxiak ...... 79 12 22
P.E.S.A. ...... 79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**
Iturbide Egoitza ...... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ...... 79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ...... 79 87 77

### 22 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "Profundidad seis". 7 eta 9.30etan.
Novedades: "El disparate nacional". 10.30etan.
— Kontzertua. Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak eta Arrasate Musikalen Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko dute. Eskoriatzako San Pedro parrokian, arratsaldeko 8.30etan.
— San Juan jaiak:
- Kantaldia. M-ak eta SS-77. Monterronen, gaueko 10.30etan. Euria eginez gero, kiroldegian.
— Goardiako farmazia:
Irizar. Erguin.

### 23 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Profundidad seis". 5, 7.30 eta 10.30etan.
Novedades: "El disparate nacional". 5, 7.30 eta 10.30etan.
— San Juan jaiak:
- Kuadrilek Txopoa jaso. 6.30etan. Herriko Plazan.
- Erraldoi eta Kilikien konparsa. 8etan.
- San Juan sua. Lore Gazteak taldearen laguntzaz. 10.30etan. Plazan.
- Umeentzako emaldia, Azkona taldearen eskutik. Herriko Plazan, arratsaldeko 5etan.
— Goardiako farmazia:
L. Amezua. Sta. Marina.

### 24 IGANDEA

— Zinea: Alai: "La caja de música". 5, 7.30 eta 10.30etan.
Novedades: "Romero". 5, 7.30 eta 10.15etan.
— San Juan jaiak:
- Entzierroa. Goizeko 9etan.
- 80 urtetik gorako aiton-amonei omenaldia. 12etan. Udaletxean.
- Bilboko Udal Musika bandaren kontzertua. Monterronen ordu 1ean.
- Sebastopoleko Titiriteroak. Herriko Plazan, arratsaldeko 4etan.
- Kontzertua. Arrasate Musikal eta Gorosarri abesbatzarekin. San Frantzisko Elizan, gaueko 10etan.
- Hauts Gaua. Gaueko ordubietatik aurrera.
- Zine Komikoa. Goizaldeko 3etan.
— Goardiako farmazia:
A. Ruiz. Madalena.

### 25 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "La caja de música". 7 eta 9.30etan.
Novedades: "Romero". 7.30etan.
— San Juan jaiak:
- Entzierroa. Goizeko 9etan.
- Eskalada ikuskizuna. Arratsaldeko 6etan.
— Antzerkia. Trapu Zaharrak taldeak, "El vengador enmascarado" antzezlana eskainiko du, arratsaldeko 7etan, herriko kaleetan zehar.
— Goardiako farmazia:
A. M. Morales. San Andres.

### 26 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "La caja de música". 7 eta 9.30etan.
— San Juan jaiak, "Kuadrilen eguna":
- Entzierroa: goizeko 9etan.
- Herri bazkaria. Eguerdiko 2etan.
- Haur antzerkia. Goloka taldeak, "Makina transformatzailea" lana eskainiko du. Arratsaldeko 4etan, Herriko Plazan.
— Goardiako farmazia:
Azkoaga. Ferrerias.

### 27 ASTEAZKENA

— Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
— Goardiako farmazia:
S. Español. Iturriotz.

### 28 OSTEGUNA

— Zinea: Alai: "Un hombre inocente". 7 eta 9.30etan.
— Zineklub. "Adios Moscu" pelikula ikusteko aukera. Amaia antzokian, arratsaldeko 8.30etan.
— Goardiako farmazia:
M. Corcuera. Musakola.

**LEHIAKETAK**

• **Bilintx V. Haur literatur saria**. OHO eta BBBeko haurrei zuzendua. Idazlanak, narrazio, ipuin luze edo nobela sailekoak izango dira. Gaia idazle bakoitzaren esku uzten da. Lanak bidaltzeko epea, irailaren 30a.

**IKASTAROAK**

• **Lehen laguntzak emateko ikastaroa**. 16 urtetik gorakoentzat. Ikastaroa hilaren 27an hasi eta bi astez luzatuko da. Egunero ordubete. Aukeak antolatuta.

**Diru asko ala gutxi,**
**ez ondotik pasa,**
**ez begiak itxi.**

**Sartu, ikusi...**
**eta komeni bazaizu erosi.**

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxa: 791489 ARRASATE




# Zeure gogoko altzariak




# IBM ondenadorea, paregabea

bere kalitate garantian prestazio eta orain bere prezioagatik ere bat.

P.S.N/P.V.P **179.300** pta.

IBM
Kontzesionari Baimendua
Ordenadore Pertsonalak

Modelo honetarako IBMren kontzesionari baimendua den LOGIC CONTROLek, atseginez aurkezten dizue eskaintza hau prezio/errendimendu arteko erlazio bikainagatik eta bere saltoki guztiak zuen zerbitzua dauzka, nahi izanez gero, zeuk bertan ikusi ahal izateko.

**LOGIC CONTROL**®

“Euskalduna izatea euskaraz bizitzea da, arraza, abizena edota aukera politikoak alde batera utzita, benetan diferentziaz definitzen gaituena euskara da eta era berean bere inguruan egiten den kultura. Euskararen inguruan kultura propio bat egiteko kapaz izanez gero, euskaldunak izango gara.
(...) Ni politikak asko arduratzen nau eta nere ustez akats bat da gaur egun gazte eta baita gazte ez direnen artean ere dagoen jarrera pasibo hori. Politika, denok arduratu beharko gintuen gauza da.
(...) Nik kirolean arrisku bat ikusten dut, ez ote den beste gauzen tapadera bat izango, politikarena, kezka sozialak edukitzearena, ekologiarena, etab. Orduan, gaur egungo gazteek tapadera bezala erabil dezakete kirola. Gure bailaran garrantzi gehiegi ematen zaio kirolari”.

*(Jon Sarasuak, TU Lankiden)*

“Euskadiko futbol selekzioa beti izango da ekintza folklorikoa, Euskadi berari Estatu independientearen maila onartzen ez zaion bitartean”.

*(Iñaxio Kortabarriak Monterronen)*

“Futbol selekzio batek liga propioa eskatzen du nahitanahiez. Euskadik, nahiz eta selekzio duina lortuko lukeen, ez luke maila bereko ligarik edukiko”.

*(Jabotxa Fernandez kazetariak Monterronen)*

“Futbolaren munduan interes politiko eta ekonomiko larregi dago, Euskadiko futbol selekzioa osatzeko baimena eman dezaten. Aldiz, Estatuari ez zaio inporta Sanbo, Igeri...edo antzeko kiroletan Euskadiko selekziorik egotea”.

*(Xabier Bengoetxea, Errealeko jokalariak Monterronen)*

**Zein helbururekin antolatu duzue II. Arte Hamabostaldia?**



Egia esan, helburua iazko bera da, nahiz eta aurten iaz ez bezala, kanpoko artistek parte hartzeko aukera izango duten.

Iaz Arte Hamabostaldia helburu zehatzarekin antolatu genuen, herrian artea lanak egiteko gai den jendea badagoela adieraztea eta arlo honetan herrian dagoen beharra salatzea hain zuzen.

Aurten kanpokoei parte hartzeko aukera eman nahi izan diegu, guretzat ere aberasgarria izan daitekeelako. Hau da, beste artista batzuk egiten dutena ezagutu eta harremanak izateko aukera ona izango da. Edozein modutan, gure azken helburua, arrasatearrei gaur egun egiten den artea ezagutzera ematea da. Hamabostaldia guk eta ez Udalak antolatzeko arrazoia, benetan gaur egun egiten den artea ezagutzera ematea da. Udala bezalako erakundeek akademikoak izateko joera dute, eta gu mundu horretan mugitzen garen artista gazteak izanik, egungo artea ezagutzeko aukera zabalagoa dugu.

Ez dugu ohizko aukeraketa era erabiliko. Normalean, maketak aurkeztu behar izaten dira, gero hamabost egunetan maketa garatzeko. Guk, aldiz, proiektuari emango diogu garrantzi handia. Nahiago ditugu lanak egiteko segituko den prozesua eta lana garatzeko emango diren pausuak ezagutu azken emaitzak baino. Jakin badakigu, hala ere, emaitzak beharrezkoak direla eta horiek direla herrian geratuko direnak.

*Miren Olazabal*
*Hamabostaldi taldeko kidea*

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Dultzearen autozerbitzua

ZORIONAK

ONDO PASA



# San Juanak 1990

## *Arrakastaz burutu Dantzari Txiki Eguna*

Dagoeneko festa giroan bete betean sartuta gaude, nahiz eta San Juan bespera bihar izan. Joan den asteburuan egin ziren ekitaldiak sarrera bikaina eman zieten jaiei. Haur danborradarekin hasi zen festa. Herriko 270 haurrek hartu zuen parte eta azken urteetan ez bezala, aurten Herriko Plazan amaitu zen desfilea.

Igandean berriz, Lore Gazteak eta Txikitxu taldeek antolatutako Dantzari Txiki Eguna arrakasta handiz egin zen, zeuden beldurrak guztiz ezabatuz. Denetara 700 bat dantzari etorri zen. Baina igandean, dantzariez gain, gastronomiak ere




izan zuen txokoa. Goizeko 9.30etan hasi ziren Sebero Altube Plazan SUDCek antolatutako makailo lehiaketa. Guztira hamaika elkartek hartu zuen parte eta irabazleak Bidegain elkarteko Fabian eta Fuentes izan ziren. Arratsaldean, ostera, umeen arteko tortila lehiaketa izan zen.

Gaur, gaueko 10.30etan, Monterronen, *M-ak* eta *SS-77* taldeek kontziertoa eskainiko dute. Bihar, azkenik festan guztiz murgilduko gara, eta nobedaderik aipatzekotan, ezin ahaztu Juanito Arzamendik egin duen *Aupa Arrasate* himnoa aurkeztuko dela, nagusien danborrada amaitutakoan.



### *Pintura erakusketa*

Aste honetan zehar , San Juan pintura lehiaketan parte hartu zutenen lanak ikusgai daude Monterronen.

Denetara 44 artistak hartu zuen parte lehiaketan. Goizean hasi eta ordubietarako amaitu egin zituzten lan guztiak.

Arratsaldean, epaimahaikideak bildu eta lehen saria Algortako Eugenio Herbasen lanari eman zioten. Lehen mondragoetarra Arantxa Baskaran izan zen eta umeetan Aitor Lajarin eskoriatzarra eta Iñaki Mayor arrasatearra irten ziren garaile.

ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA
BAZAR TOKI ON
J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

PEÑACOBA
Auto-Eskola
Zarugalde 46,
79 14 01
ARRASATE

Onduline
URALITA
TXOMIN HERIZ
eraikuntzarako materialak
Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

ORTZI
erretegia
Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

# S. F. Xabier ikastolak kiroldegi berria

Larunbatean San Frantzisko Xabier ikastolak kiroldegia inauguratu zuen. Inaugurazioan, Jesus Garmendia, Ikastolako lehendakariak eta Udal agintariek hartu zuten parte, irakasle, ikasle eta gurasoekin batera.

Ikastolako kiroldegiko lanak iazko irailean hasi ziren. Denetara 70 milioi bat pezetako aurrekontua izan du kiroldegi berriak. Hortik, era desberdinetan, Udalak 14 jarri ditu. Gainerakoak Ikastolak berak.

Pistek 600 metro koadroko azalera dute. Bertan, saskibaloia, eskubaloia, futbito eta boleibolean jokatu ahal izango da. Geroago, badminton eta tenisa ere sartuko dituzte.

Aldameneko aretoak, 160 metro koadro ditu. Batzarrak, hitzaldiak eta antzerkiak egiteko erabiliko da. Obra hauekin, S. F. Xabier ikastolaren kirol eskaintza ikaragarri zabalduko da, bertan jokatzeko moduan, noski.



## Txandaka

### Ehiza: kirola, plazerra ala tortura?

Maiz hitz egiten da ekologista erradikal eta ehiztarien arteko desberdintazunaz.

Ezberdintasunak ez dira hainbestekoak eta egun ezberdintasunik egoteak ez luke suposatu beharko kontraesan horiek bizi osorako direnik. Zenbait gaitan eztabaida sakondu beharko litzateke...bi aldeetatik!

Beraz ba, goazen gaiaren harira, egun hauetan maiz azaldu den albiste bateaz: Leintz Ibarreko ehiztari erakundeak neurri "ekologiskotzat" jotzen du ehiztari-errefuxio eraikuntza.

Gure ustez, birpoblaketa, errefuxio, kotoak eta ehiza oro har, ikuspegi ekologista zabalago batetik aztertu beharko lirateke, ondorio guziak onartuz. Beraz:

Hemendik, Euskalerrian orain arte eman den hazkunde-politika irrazionala salatzen dugu. Kontuan hartzekoa da herri txiki honen biztanle dentsitatea oso handia dela, hau gutxi balitz eta "aurrerapenaren" izenean, gure Herria saihesbide, autopista, oihan-pista eta bestelakoaz gurutzatzen ari dira. Bereziki salagarria gertatzen zaigu ohian-politika eza, hala-nola "pignus insignis" (hemengo pinu arrunta)-aren landaketa masiboa...Faktore hauek gehituz, ba, erraz ikus daiteke baso animaliek gero eta eremu txikiagoa daukatela.

Natura ez badugu bere osotasunean errespetatzen, kontuan har ondasun armoniko zein preziatua den edo gureak egin du! (ez bait gara gizakiok



*Iñaki Jauregialzo (*)*

inola ere munduan bizi garen ezpezie bakarra) Oso kezkagarria da giza espeziearen autoerregulatzeko saiakera.

Hots: katai trofikoa lehen graduko autoerregulatzaile naturala baino ez da.

Ondorioz, behar-beharrezko jotzen dugu ehizaren salaketa eta debekua.

Modu honetakoa ez den beste edozein neurri, zurikeria baino ez da; non "gizona" (naturaren-errege, jaun eta jabe) egin zein desegin dezakeen epaile bilakatzen du. Zoritxarrez, hau da birpoblaketa eta ehize errefuxioek betetzen duten papera sarri aski. Bestela, nola da posible urteoro "Pitxoi-tiraketa" lehiaketa Arrasaten antolatzea?. Nork du eskubiderik animalia bat, pitxoia, dibertsioz torturatu eta hiltzeko?

Hau ez da ez kirola ez eta dibertsioa ere, hutsean "tortura" baizik. Parte hartzaile bakar batek ere ez du gosez dagoelako tiroa jaurtitzen. Ohitura denez, ez da batere onuragarria, kaxkarinkeria baino.

Beraz eta hemendik, naturarekiko zein animaliekiko hartzen ditugun zenbait jarreraz gehixeago eztabaidatzera gonbidatzen dugu herritargoa. Dena den, Udalak bereziki, baluke zer esanik, berak bultza beharko lukeelarik eztabaida hori, bestela zer? Beste espezie guziak akabatu ondoren: zeri egin behar diogu tiro, pinu-kimuei akaso? (badago halako saioak egiten dibertitzen denik ere, ez pentsa).

*(*) EKIko partaidea*

GATZAGA Jatetxea

Arrasateko jatetxea
Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

ZUBIZARRETA TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



# Brintzak, gero eta handiagoak

### *Altamiran lurrak mugitu, kezka nagusitu*

Ferixalekuko obrek Altamira auzoan eragin duten lur mugimenduaren eraginez, gelditu egin dira Irgalak egingo dituen etxeen lanak zein Ferialeko pilotalekuko lanak. Oraingoz udal eta gainerako teknikoen buruhausterik nagusiena, lur mugimendua gelditzea da. Izan ere, Jose Luis Iñarra pasealekuan, justu obren gainekaldean, agertu ziren brintzak egunetik egunera handiagoak dira, azpian lurra etengabe ari da lerratzen eta.

Lur mugimendua zerk eragin duen ez dago zehaztuta, baina kontuan hartzeko faktore ugari dago. Lehenengo eta behin, terrenoa ez da egonkorra. Bideari eusten dion horma bestalde, justu-justuan omen dago zutik, bere garaian gaizki egin zelako. Terrenoaz egin zen analisi geoteknikoa gaizki egin zen. *Katzo* eta *Larragain* etxeak botatzean eta hondeatzeko makinen eta kamioien etengabeko joan-etorriak bibrazio handiak sortu dituzte. Hori ikusitakoan, lehenengo neurria obrak geldiaraztea izan zen, joan den ostegunean. Larunbatean harria ekartzeari ekin zioten, eta azken egunetan bideko horman burdin eta porlanezko anklajeak ipintzen ari dira, horma bera tinkatzeko. Asteazkenean bilera egin zen, egindako lana neurtu eta hurrengo pausoak erabakitzeko.

Azken egunetan, notario bat ari izan da Caja Laboraleko etxeak miatzen, lur mugimendua dela eta, etxebizitzetako hormetan agertu diren pitzaduren berri hartzeko, geroago Aseguru etxeen aurrean behar diren erreklamazioak aurkezteko.

## Usteak uste...

Udaltzaingoa Udaletxe berriztuan dago dagoeneko. Gainontzeko zerbitzuak San Juanak ostean joango dira. Agindutako epean, beraz, Arrasatek guztiz berriztuta dauka bere Udaletxea, Iparraldean Herriko Etxea deitzen duten hori.

Geure hitza -Udaletxea- baztertzekoa ez den arren, gustatzen zait gure anai-arrebena. Herriko Etxea-, benetan denon etxea delako. Koska, ordea, etxe hori arrotza sentitzen dugunean dator. Ondo atenditzen ez gaituztelako, trabak baino aurkitzen ez ditugulako, edota, besterik barik, arrotza dugulako.

Oraingo -eta geroko- Udalbatzen besteak besteko erronka hori da, denon diruaz berriztu dugun Udaletxe hori Herriko Etxetzat har dezagun lan egitea. Beste horrenbeste udaltzain eta udal langileekin. Jendeak etxeari eta instituzioari egingo dion harrerak zerikusi handia izango du bertako langileek hiritarrei emango dieten tratuarekin.

Behiala, Francoren garaian, eta geroxeago ere bai, Arrasateko Udaletxeak adiskidetsu ez ziren aurpegi betoskoz betetako kobazulo iluna ematen zuen. Harez gero, berriztu egin da pertsonala eta itxuraldatu Udaletxea.

Une egokia, aurkitu denon artean, denona den Udaletxe eder hau Herriko Etxea bihurtzeko, herritar guztion etxea. Horrela izango delakoan, osasunez urratu, Arrasate!

*Joxe Aranzabal*

LA UNION
Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala
*Tailerra: Zaldispe 2,*
*Erakusketa: Sancho Abarka 6,*
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12
ALFA ROMEO

IBARRA Garajea S.A.

EBRO
NISSAN
*Garajea*
*Automobil-konponketa*
*Garabi zerbitzua*



# "Aukera galdu da"

## *Arrasate Musikalek, Udalak hartutako erabakia salatu*

Arrasate Musikalek, joan den astean batzar orokorra egin ondoren, Udalak akademiaren etorkizunari buruzko erabakia baloratu du. Arrasate Musikalek, Udal Kontserbategia izateko aukera galdu dela dio. Guraso, aholkulari eta irakasleen eritziei ez zaie kasorik egin eta ondorioz Arrasate Kontserbategi gabe geratu da. Hartutako erabakiaren ondorioz, akademiak pribatu izaten segituko du, nahiz eta behar dituen besteko dirulaguntzak jaso. Arrasate Musikalek, gurasoek irakasleei behin betiko kontratuak egiteko ardura hartuko dutela nork pentsa dezakeen galdegiten du. Azkenik, udal gorporazioak aldatu egiten direla dio, eta gaur hartutako erabakia edozein momentutan alda daitekeela salatu. Udalak hartutako erabakia, bat batekoa eta egongaitz bezala definitzen du.

Gai honekin lotuta, Arrasateko Alderdi Sozialistak, Arrasate Musikalekin bat datorrela adierazi du eta bere ustetan, Arrasate Musikalek, Udalaren erabakiaren erantzunkizuna duten alderdiak salatu beharko lituzke.

### Ttipi ttapa 90 Arrasaten

Asteazken arratsaldean, heldu zen Arrasatera "Ttipi Ttapa 90", aministiaren aldeko ibilaldia. Ttipi Ttapa ibilaldiari Musakolan ongietorria eman ondoren, Sebero Altube enparantzan, ekitaldi politikoa egin zen. Ekitaldi politikoan, Antton Mendizabal EHUko irakasleak, Arrasateko Amnistiaren Aldeko Gestoren ordezkari batek eta ibilaldiko kide batek hitz egin zuten. Ekitaldi politikoari bertsolariek eman zioten amaiera. Ondoren, herri afaria egin zen Herriko Plazan.

### Bide heziketan sarituak

San Antolin ikastolako 5. mailako zortzi haurrek osatutako taldeak Barne Ministeritzak antolatutako Bide Heziketari buruzko sariketan, Autonomi Elkarteko kanporaketan hirugarren saria irabazi du.

*JAIOTZAK*

Larrañaga Garcia, ***Iñaki***. Ekainaren 7an.
Sanchez Fernandez, ***Alexander***. 10an.
Alzola Uriarte, ***Jone***. 14ean
Lage Hernandez, ***Iñaki***. 16an.
Mardaras Etxaburu, ***Eneko***. 16an
Olivera Rodriguez ***Daniel***. 18an

*EZKONTZAK*

***Salvador Blanco Blanco & Ana Delgado Blanco***. Ekainaren 16an. Elizez.
Francisco Javier Ilarramendi Mañas & Carmen Amaia Zeziaga Ezkurra. 17an. Elizez.




**Ginekologi kontsulta**

**F. Cristobal** doktorea
**Jose Mª Gomez** doktorea
**A. Otalora** doktorea
**A. Estomba** doktorea
**Mª Jose Ruiz** doktorea

***Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.***

**Ana Zubizarreta** doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
**Jose Luis Higura:** Kirurgia, basektomia...

**Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.**

**Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara telefono honetan: 79 20 18**

**Zerkaosteta 17, behea** **ARRASATE**

# SASKI-NASKI
## lehiaketa

### Asteroko sariak

KOLTZA
**Aranzabal Akobe**
elektrogailuak

IRRATI-
-IRATZARGAILUA



MELIA BIDAIAK

**Etxe Aundi** jatetxea

AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT

OKENDO
KIROLAK

ZAPATILAK



Ikatz
argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA

**ASTE HONETAKO SARITUAK**

**RUTH TRIGAS**
*Irrati-iratzargailua*

**EDURNE MARTINEZ**
*Bi lagunentzako afaria*

**IKER ORIA** *Kirol zapatilak*

**J. L. SALABERRI**
*Argazki makina*

### Hileko sari handia

KOLTZA
**Aranzabal Akobe**

**HI-FI Thomson ekipoa: diskogailu, anplifikadore, pletina bikoitz, sintonizadore eta hiru bidetako pantailarekin**

## *Galdera:*

## *Ze musika taldek jo zuten 22an Arrasaten?*

**Erantzuna:** ..........................................

*Izen-deiturak:* ..........................................

*Helbidea:* .................... *Herria:* .................... *Tlfnoa:* ....................

## Egunkari eguna

Larunbat arratsaldez Arrasaten Egunkari Eguna izan zen. Arratsaldeko zazpietan hasi eta hamarrak arte luzatu zen festan, egunkari erraldoiaren zortzi orrialde bete ziren. Orriak, 152 publizitate moduloz eta 200 informazio moduloz bete ziren. Publizitatea herriko komertzio ugarik jarri zuen. Aipatzekoa, Fagor-ek egunkari festa guztietan hamabost modulo betetzeko adina diru eman duela. Informazioa berriz, hainbat kultur elkartek jarri zuen.

Egunkari festarako publizitatea lehenago prestatua zegoen .Arrasateko Txalapartari taldeak, Josu eta Jokin trikitilariek eta Aizpurutxu hankapalu taldeak alaitu zuten festa.







# AED lehiaketetako liburuak

### *Kaleratuta iazko ekitaldian saritutako lanen bildumak*

Asteazken arratsaldez, Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren sariketan eta Arrasate 89 lehiaketetan saritutako lanen liburuak aurkeztu ziren Monterronen. Liburuak, Karmelo Uribarrenek aurkeztu zituen. Koldo Rodriguezek itzulpengintzan izan duen esperientzia azaldu eta gero, Iñaki Ruiz de Gaunak esperantoari buruzko zenbait azalpen eman zituen. Julen Arejolaleibak, Iokin Zaitegi Sariketara aurkeztutako lan gehienak argitaratzen ahaleginduko direla azaldu zuen.

Lehiaketetan saritutako lanen bildumari dagokionez, Gerardo Markuletak, liburuaren aniztasuna azpimarratu zuen, liburuak bere baitan arlo ugari biltzen bait ditu.

Azkenik, Patxi Goikoleak, saritutako bertso paperak abestu zituen.

Liburuen aurkezpen ekitaldia aprobetxatuz, IV. Iokin Zaitegi Sariketa aurkeztu zen. Aurtengo gaia, *Ekialdeko Europaren Aldaketa* izango da. Arrasate 90 lehiaketek berriz, aurreko urteetan jorratu diren arloak izango ditu, hau da, ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, argazkia eta bideoa.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
ARETXABALETA

ECUADOR
Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO elektrizitatea
* Elektrogaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Argiztapena
* Bobinaketak
* Proiektuak
Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

LARRINGAN
auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA IRAKASLEAREKIN
Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Udaltzaingoaren egoitza berriztua

# Udaltzaingoa betiko Udaletxean

## *Uztailaren 5ean gainontzeko zerbitzuak aldatuko*

Asteazkenean, hilak 20, Arrasateko Udaltzaingoa bere lehengo egoitzara lekualdatu zen. Behin Udaletxe zaharra berregokitu ondoren, hau izan da lehen urratsa, Udaletxea poliki-poliki betetzen hasteko.

Uztailaren 5ean aldatuko dira gainontzeko udal zerbitzuak Udaletxe berriztura. Beheko solairuan, Udaltzaingoa, harrera tokia eta artxiboa egokituko dira. Lehen solairuan, pleno aretoaz gain, Alkatetza eta Idazkaritza egongo dira. Lehen solairu honi, alboko etxeko bi etxebizitza gehitu zaizkio. Bertan Udal Zerbitzu Teknikoak egokituko dira. Bigarren solairuan Pertsonal saila eta Kontu Artekaritza jarriko dira eta atikoan, azkenik, gainontzeko sailak: Kultura, Gazteria, Euskara eta Ongizate Zerbitzua eta Hezkuntza, hain zuzen.

Solairu honetan, atikoan alegia, Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoentzat zenbait bulego egokitu dira.

Aldaketa hauek direla medio, Udaletxea uztailaren 5ean itxita egongo da.

**■ Gauzak argituz**

67. alean kaleratutako erreportaiari buruz, ohar batzuk. Alde batetik, Korta ez dela lau bideo-denden jabea. Elkarte limitatu baten esku daude, bera bertako partaide delarik.

Bestetik, maiatzean egindako harrapaketan, Ertzaintzak ez zuela bideo bat bera ere eraman lau dendetatik. Hori bai, Ertzaintzak dioenez, 1985etik aurrera, argiketa mordoa ireki zaizkie Bergarako epaitegian, pelikula piratak medio.

**■ SDUCen oharra**

Iratxerako bidaia tokatu zaien jubilatu guztiei, Abaroa etxetik lehenbailehen pasatzeko eskatzen zaie, txartelak jasotzera.

**■ Mendi Asteko zozketak**

Honako zenbaki hauek lortu dute saria. Mountain-Bike txirrindua: 97a. Hamanbost mila pta.ko sariak: 99, 160 eta 289a Sariak jasotzeko Besaideren egoitzara jo.

**■ Arlaban eta Gatzaga itxita 24ean**

San Juan egunean, Espainiako 89 TxirrindulariTxapelketa dela eta, Arlaban itxita egongo da goizeko 10.30etatik 13.30etara. Gatzaga, ostera, 8etatik 2etara. Egun honetan Gasteizera joan nahi duenak beraz, Aramaiotik joan beharko du.

IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA

Magisterio Eskola honek zera jakin erazi du:

1990-91 IKASTURTERAKO
AURREINSKRIPZIO-EPEA ZABALIK DAGOELA

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Gipuzkoa
Tfnoa: 943 - 79 04 40
Ordutegia: 9-12 eta 15-18

UDALA
Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

KAJOI TABERNA
erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27



Ekainaren 13a, asteazkena, San Antonio eguna. Hor bildu zen Sebero Altube plazan neska-mutiko mordoa Fray Rufinoren ardurapean, urteroko bedeinkapena jasotzeko. Zer zela ta? Nagusi egiten direnean, senar eta emaztegairik falta ez dakien. Hala bedi!



Epelde



EUSKALTZALEEN-DEIA

1'go. zenbakia EUSKALTZALEAK – Donostia'n 1931'ko - Epaila'ren - 31'an

*Idazkaritza Gipuzkoa'ko Aldundi jauregian*

*Gure «DEIA», zertarako?*

Hauxe dozue 1931ko martxoaren 31ko dataz argitaratu zen **Euskaltzaleen-Deia** aldizkariaren lehen zenbakiaren azala. Bertan kontatzen da nola 1927ko irailaren 4ean Arrasaten Euskaltzaleak (Aitzol, Orixe…) taldea sortu zen. Haien helburua euskara arlo guztietara zabaltzea.
Egun hartan Euskal Eguna antolatu zen Biteri lilitegian. Arrasateko sarreretan kartelak: "Ar̃asateko er̃iak, euskal anaitasuna dutenai ongi-etor̃ia".
"Euskal-aldizkingien eguna" antolatu zen, meza, bazkaria, "Txanton-Piperri", dantzak, koroak, … Arrasaten, 1927an.

Apirilaren 4ean ezkondu ziren Garagartzan **Juanito Lizarralde** eta **Mari Jose Gil**. Ondoren, Andaluziara egin zuten eztai-bidaia, eta handik bueltan, Zuk Nahi tabernan eguneroko lanari berriro ekin. Aurrerantzean, mila zorion!


AHIZKE

**AHIZKE-CIM Koop. E.**

ACEIG-FECEIko kidea
Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana / Frantsesa / Ingelesa
Haurrak / Gazteak / Helduak / Enpresak
Maila guztiak / Azterketarako prestakuntza / Ohizko ikastaroak eta trinkoak

Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



**ETXE-AUNDI**
**Dastapen-menua ekainaren 29rako**

- Barazk eta ganben koktela tomate-coulisse gainean.
- Frantsesporruak izokin kezkatuz eta otarrainskak barrubeteak.
- Ahate-giharrea eregineta-sagarrez barrubeteta
- Fruta-tarrina almendra-moussearekin.

**3.200 pzta BEZ barne**

*Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56*
*OÑATI*

## txutxumutxuak



◄ Harriduraz ikusi dugu egun hauetan arrasatearrok gazte hau nola zintzilikatzen zen San Frantzisko elizaren kanpandorretik. Eskalatzailea **Erramun Irastorza** dugu, eta egunotako prestakuntzak, datorren astelehenean, arratsaldeko 3tatik aurrera eskainiko duen exhibiziorako izan dira. Bitxia benetan.

*Saski Naski lehiaketa*ren irabazleekin segituz, hemen dituzue pasa den astekoak. Aranzabalen irrati-iratzargailua **Josu Garcia**rentzat izan zen; Etxe Aundiko afaria **Ane Barriocanal**entzat, eta Ikatzeko argazki makina **M. Karmen Larrañaga**rentzat. Argazkian agertzen ez den arren, **Imanol Molina**k ere Okendo Kirolaken zapatilak jaso zituen ►



## izen propioak

***Antonio Urzelai***, 78, bergararra, *Bergara* liburua kaleratu berri du. 1934ean Santanderren, Injinerutza industriala ikasi zuen. Jubilatu arte "Ezenarro y Cia"n. Gerra garaian, Amaiur batailoian ibili zen. Lau urte t'erdi eman ditu lan hau egiten.

***Iñaki Txintxurreta***, 23, pasaitarra, Arrasateko Udaleko idazkari berria, karguan Josemari Eraña ordezkatuz. Iñakik, urtebete dela Zuzenbide ikasketak bukatu zituen eta ordutik hona, idazkari oposizioak prestatzen ari izan da. Hirugarren mailako Pasaiko futbol taldean jokatzen du.

***Arantxa Baskaran***, 44, arrasatearra, IX. Aire Zabaleko Pintura lehiaketan, herri mailako lehen saria irabazi zuen. Arantxa orain hamabosten bat urte hasi zen margotzen eta azken honetaz gain, beste zenbait sari ere irabazi ditu. Aurrezki Kutxan eta Etxe Aundin egin ditu azken erakusketak. FP1 ikasi zuen eta azken 26 urteetan Cerrajeran ari izan da lanean.


AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN

Arrasate
OPTIKA - OFTALMIKA

— Gogorrak
— Porodunak
— Bigunak
— Kosmetikoak
— Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!
Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU
Zure betaurreko eta lentilen asegurua doan
Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

# Garraio publikoa makala denean

## 'Vergaresa'k lehen eta PESAk orain, zerbitzuaren monopolioa

**Garai batean, trenak ederki asko betetzen zituen arrasatearron garraiobide beharrak. 60. hamarkadaren bukaeran, ostera, bertan behera utzi zuten zerbitzu hura.**

**'La Vergaresa' autobus enpresak hartu zuen orduan mondragoetarron joan-etorrien kargu. 1983. urteko irailean, berriz, 'Vergaresa'k porrot egin, eta PESAri heldu zitzaion txanda.**

**Garraio publikoa. Arrasate eta inguruetan beti enpresa baten monopolioa izan dugun kontua...**

**Eta tira, monopolioak ez dira bat ere onak.**



Mota guztietako garraio publikoaren monopolioa, PESA enpresaren esku

Oroimenean galdu zaizkigu trenak Arrasate, eta oro har bailara guztia zeharkatzen zitueneko egunak.

'Ferrocarril Vasco-Navarro'k, Lizarra-Gasteiz eta Gasteiz-Mekolalde ibilbideak betetzen zituen orduan.

1968ko urtarrilaren 1ean, ordea, Espainiako Garraiobide Ministeritzak agindua kaleratu zuen, 'Ferrocarril Vasco-Navarro'ri esplotazioaren jabegoa ukatuz.

Arrazoi politikoren bat ere egon omen zen tartean, baina funtsean, urteroko hogeitamar milioi pta. inguruko galerak zirela eta hartu zen erabakia; orduko hogeitamar milioi!

Gure bailarako Udalek biziki protestatu zuten, trenak sikiera Gasteiz-Mekolalde bidea betetzen segitu beharko zuelakoan. Ministeritzak, ordea, ez zuen eskaria onartu.

Anbulategi alboko geltokia eta trenbide zati batzuk gelditu zaizkigu soilik egun haien oroigarri.

### 'La Vergaresa'ren txanda

1968ko urtarriletik aurrera, 'La Vergaresa' autobus enpresak eskuratu zuen inguru hauetako garraio publikoaren monopolioa. Enpresaren jabeak, Celestino Idarreta eta haren hiru semeak: Pedro, Jose Mari eta Miguel.

70. hamarkadan, dena ondo.

80.aren hasieran, ordea, okertu egin ziren gauzak. Diru arazoak sortu ziren enpresako zuzendaritza eta hirurogeitazazpi langileen artean.

Soldatak jasotzen ez zituztela eta, protesta moduan, 1983ko irailaren 12tik aurrera langileek Eibar-Gasteiz, Eibar-Iruñea, eta Oñati-Durango ibilbideetan egindako bildutako diruak gordetzeari ekin zioten.

Egoera ikusita, irailaren 26an zuzendaritzak enpresaren porrota onartu zuen.

### Konponbide bila

Langabezian gelditutako hirurogetazazpi lagunak Eusko Jaurlaritzarekin jarri ziren harremanetan.

Eusko Trenbideek lau autobus utzi , eta hurrengo bospasei hilabeteetan, nola edo hala aurrera egin zuten.

Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundia sartu zen saltsan.

Irtenbideren bat aurkitu beharra zegoela, eta PESArekin jarri ziren tratutan. Horrela, 1985eko azaroaren 1ean enpresa honi eman zitzaion inguru hauetako garraio publikoaren ardura. Jubilatutako lau langile ezik, 'Vergaresa'n aritutako beste guztiak hartu zituzten lanera.

Ordutik, eta gaur arte, euren esku egon da monopolioa.

## Bizkaiarekin daukagun lotura, benetan urria: egunero joan-etorria egiten duten bi autobusak besterik ez

### Zerbitzuak behera

Jende askotxok gogoratuko du duela hogei urte inguru herri-barruko garraioan aritzen zen Urbano gorria. Dagoeneko, ordea, ez da posible halako zerbitzurik aurkitzea. Takolotik kiroldegirainoko bidea egin beharrez gero, adibidez, oinez joan behar.

Ez da desagertu den linea bakarra, gai-

nera. Duela hiruzpalau urte, PESAk bertan behera utzi zituen Arrasate-Durango eta Oñati-Durango ibilbideak. Horrela, goizeko 8.15etan eta arratsaldeko 3etan Bilborantz irtetzen diren autobusak ditugu Bizkaiarekin daukagun lotura bakarra. Benetan urria. Gipuzkoa eta Gasteizekin daukaguna, berriz, egokiagoa da. Gasteizera, 14 autobus egunero; Eskoriatzara 24; Oñatira 12; Bergarara 10; Eibarrera 8; Donostiara 4, eta azkenik, Zumarragara bat bakarra. Horiek dira Arrasatek gainontzeko herriekin dituen harreman zuzenak. Beste edonora joateko asmotan dabilenak, auskalo zenbat konbinazio egin beharko dituen.

Egoeraren aurrean, arrasatearron erantzuna errepideak kotxez betetzea!



Eguneroko kontua: jende ugari geltokian, autobusaren zain.

# Kexu dira erabiltzaileak, kexu

Argi dago Mondragoeko jendeak hutsuneak ikusten dituela garraio publikoaren arloan. Garibaiko geltokira hurbildu, eta hantxe daude adin guztietako gizon, emakume, neska eta mutikoak, autobusen baten zain.

**Isabel**, 33 urte. Bere ustetan, puntualitatea litzateke akatsik azpimarragarriena. "Beti berandu, beti berandu; baina hori bai, egunen batean minutu pare bat atzeratzen bazara, ziur autobusak alde egin dizula".

**Jose Antonio**, 54 urte. Jose Antonio, eta autobusetan erretzeko dagoen ohitura. "Nik ez dakit zertarako jartzen dituzten hainbeste debeku-ohar. Begiratzen duzu autobusaren atzekaldera, eta beti dago norbait zigarroak erretzen. Noiz edo noiz, tokatu izan zait parean gazteren bat 'porro'ak egiten ere".

Pertsona guztiek, ordea, ez dute berdin pentsatzen. **Aitorrek**, adibidez, 23 urteko mutil honek ez du ulertzen zergatik ukatzen dioten jendeari erretzeko aukera. "Debeku-oharrak ugari, baina hor aurkitzen dituzu hautsontziak mutur aurrean. Gainera, atzekaldean eseri eta leihoa irekiz gero, ez dakit nik zergatik inporta zaion jendeari batek erretzen duen edo ez".

Zerbitzuen urritasunari buruz ere, kezka ugari.

**Maria Luisa**, 48 urte. "Ez dut autobusa askotan erabiltzen, baina gehiago egon beharko lirateke. Donostiara joateko, adibidez, goizeko 8etakoa galtzen baduzu, eguerdiko ordubiak arte itxaron behar. Beti dago konbinazioak egiteko aukera, Eibarren edo, baina...".

Ba tira, behintzat aukera hori gelditzen da. Bizkai aldera jo behar dutenentzat, hori ere ez.

Galdetu **Edurneri**. Deustuan ikasten duen 19 urteko neska honek badu zeresanik. "Ni astero joaten naiz Bilbora. Batzuetan 3retako autobusa hartu nahi, berandu heldu...eta hurrengo egunerarte jai daukazu! Eta ez hori bakarrik. Zer gertatzen da edozergatik goizeko 8etan Elorrixo, edo Durango, edo Bilbon egon beharra badaukazu? Taxi, edo auto-stopez joan behar, bestela ezin heldu. Lehen behintzat Durangoraino joaten ziren autobusak zeuden, eta handik Bilborako tren eta autobusak, nahi beste. Orain, Bizkai aldera goizekoa eta arratsaldekoa soilik".

Goizekoa eta arratsaldekoa. Hirugarren munduan bezala.

X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA
ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK
Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak
BIZKARREZURTERAPIA
KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU
San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

BRANKA
jatetxea
Eguneko menua eta karta

# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA




Ia 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaioke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aldi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-larruzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak estanpazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian adituṙik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

## *Euskara ikasteko erabili beharreko obra*

**Ernesto Amaia Argitaletxea**

Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO

Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

# Erromeria eta dantzalekuetan barrena

## Luis Sagasta, Mane

**Luis Sagasta, Mane, 60. hamarkadan sortu zen Los Jaguars musika taldean baxua jotzen ari izan zen hamar urtez. Musika ikasketa gutxi batzuk eta gogo handiaz, azkenean inguruan ospetsu izatera heldu ziren. Franco hil ondoren, jotzeari utzi zioten, baina, hala ere, Manek musika ez du bere bizitzatik baztertu.**



Luis Sagasta, "Mane"

*— Arrasate Press: Nolatan sortu zenuten Los Jaguars taldea?*

— *Luis*: Ni ez nintzen taldean fundatzaileetarikoa izan. Ez dakit beraz, taldea nola sortu zen eta zergatik jarri zioten *Los Jaguars* izena. Taldea, Joakin Barandiaran, Jose Ramón Zugasti, Eloy Leibar, Julio Barandiaran eta bostgarren batek sortu zuten.

Edozein modutan, hasierako taldea apurtu egin zen eta Jose Ramon, Joakin eta Eloyk, Jose Ramón Mondragonek eta nik segitu genuen. Talde berria osatu genuen, izen bera bazuen ere.

*— Nolakoak izan ziren taldearen lehen urteak?*

— Gauza guztietarako bezala, dirua behar izan genuen, lehen instrumentuak erosteko. Taldeko kide bakoitzak ehun mila pta.ko mailegua eskatu zuen eta diru horrekin Gasteizen tresnak erosi genituen. Hamar bat hilabete pasa genuen dirurik ikusi gabe, ordaintzen ziguten guztia maileguak ordaintzeko behar izaten genuen eta.

Denboraldi baten buruan, baina, ni soldadutzara joan nintzen eta taldea berriro ere apurtu egin zen.

Soldadutzatik itzultzean, Joakin Barandiaran, Jose Ramón Mondragón eta nik taldeak segitu behar zuela pentsatu genuen eta Oñatiko eta Aretxabaletako beste mutil batekin taldeari berriz ere biziz eman genion.

Instrumentu berriak erosi behar genituen eta beste milioi bat pasatxo gastatu genuen horretan. Jakina, beste urtebete inguru pasa genuen dirurik ikusi gabe.

*— Taldean jotzen hasi zinenean adin nagusitasuna ez zenuenez, zenbait arazo izan omen zenuen?*

— Beno, 18 urte beteta ez nituenez, eta dantzalekuetara sartzeko adin hori behar izaten zenez, tranparen bat edo beste egin behar izaten genuen. Arratsaldeko eta gaueko sesioak izaten ziren eta jo ahal izateko paperak faltsutzen genituen.

*— Inoiz ez zenuten musikatik bizi zintezkeela pentsatu?*

> **"Nahiz eta eskaintza profesionalak izan, inoiz ez genituen onartu"**

— Hainbat eskaintza izan genuen, baina denok beste zeregin batzuk genituen, eta ez genituen aprobetxatu. Inoiz ez genuen pentsatu hortik bizimodua ateratzerik. Diru apurren bat ematen zuen, baina gehien bat ondo pasatzen genuelako egin genuen. Lehen, manager-ak zeuden. Horrelako batek, kruzeroak egiten izan zituen itsasontzi batean kontratatu nahi gintuen, bertako orkestra izateko. Hortik dirua etorriko zen, baina hemengo lanak utzi behar izango genituen, gutariko guztiok, ezkonduta ez egon arren, neskalagunak ere genituen eta, ezetz esan genuen.

*— Arazoren bat edo beste ere izan omen zenuten?*

— Istilu larririk ez, egia esan. Guk dantzarako musika egiten genuen, segun eta non jotzen genuen, horrelako musika jotzen genuen. Erromeriaren batetik deitzen bagintuzten, trikitixak jotzen genituen eta dantzalekuren batean jo behar bagenuen, Los Rollings eta horrelakoen kantak abesten genituen. Jendearen gustuen arabera, jotzen genuen.

Edozein modutan, Franco hil baino lehenxeago eta ondoren, hemen politika arazoak areagotu zirenean, zenbaitetan istiluren bat izan genuen. Kanta euskaldunak abesten bagenituen, Goardia Zibilak hurbildu eta ea zer abesten genuen galdegiten ziguten eta zenbaitetan, horrelako istuluak izan genituen.

Hala ere, kontrakoak ere izan ziren. Guri Oskorriren musika oso gustatzen zitzaigun, gure ustez, oso musika ona egiten zuten eta. Beno ba, garai hartan, gorriak zirela edo felipistak edo batek daki zer esaten zen, eta gu haien abestiak kantatzen hasi eta batek baino gehiagok, ea nolatan abesten genituen Oskorriren kantak eta horrelakoak jasan behar izan genituen.

Azkenean, hain zuzen ere, horrek eraginda utzi genion jotzeari.

*— Hamar urtetan, abentura bat baino gehiago izango zenuten ba?*

— Bai, makinatxo bat. Hasieran, arrain furgoneta batean joaten ginen alde batetik bestera. Arrain usainik ez zen falta inguruan. Gerora, furgoneta erosi genuen. Bilbotik gentozen batean, motorean zerbait apurtu eta ke beltz ikaragarria zeriola etorri ginen. Peajera heldu eta kabinakoari lehioa isteko esan genion. Ez zigun kasorik egin eta bi segundu ez ziren pasatu gizajoa eztul batean kanpora atera zen. Arrasatera ailegatu eta jendea atarteetan babestu behar izan zen.




## Euskadiko futbol selekzioa

Astelehen arratsaldean, mahainguru berezia antolatu zen Monterronen. Han izan genituen **Iñaxio Kortabarria, Xabier Bengoetxea** eta **Jabotxa Fernandez** kazetaria, guztiak ere Euskal selekzioari buruz hitz egiten. Moderatzaile lanetan, **Pello Bengoetxea.**

Bertan bildutakoen esanetan, interes gehiegi omen dago tartean, gure selekzioa osatzeko baimena eman diezaguten. Halere, guztiek ere lanean segitzeko gogo biziak erakutsi zituzten!



## Jose Caballero txapeldun

Larunbatean jokatu zen Kiroldegian, Udaberriko VI. Tenis txapelketaren finala. Aurrez aurre, **Jose Caballero** mondragoetarra eta **Alberto Gartzia** elgoibartarra. Hobeto jokatu zuen gure jokalariak; 6-0 eta 6-4eko markagailuari esker, bera izan genuen aurtengo txapelduna. Argazkian, biak ere pozik, lan ederraren truke jasotako sariekin.



## VI. San Juan Halterofilia Txapelketa

Larunbat goizean, VI. San Juan Halterofilia txapelketa antolatu zen Kiroldegian. Beraun, Irun, Zarautz eta Arrasateko taldeak izan genituen bertan, guztira 18 haltera. Gaztetxoen txandan, **Isabel Sanchez** arrasatearrak eskuratu zuen urrezko domina. Nagusienean, ostera, **Angel Garcia** izan genuen jaun eta jabe. Argazkian agertzen den arrasatear honek, gainera, Gipuzkoako gazte mailako errekord berria lortu zuen, bi kolpeko saioan 95 kilo jaso eta gero. Zorionak!



## Estatuko Trialsin Txapelketa

Datorren uztailaren 1ean, "Oñatiko III. Trialsin Saria" jokatuko da Arantzazun, goizeko 10etatik aurrera. Txantxiku Pedalada Elkartearen eskutik, gogoratu proba Espainiako IX. Trialsin Txapelketarako baliogarria izango dela.







## podiuma

### *Luma Ugarte, edo mendia maite denean*



Luma Ugarteren hogeitamar urteek begirunez ikusten dute kirolaren mundua. Aspaldi hasitako historia. *"Mutikotan, aitarekin mendi irteerak egiteari ekin nion burubelarri, eta gero, Besaide Elkartean ziharduen lehengusina batekin segitu. Gutxika-gutxika, koadrilakoekin asteburuetan...sekulako gaztaikoak jaso, baina pozik!"*.

Ez da, ordea, mendiaren mundura mugatu. Dagoeneko eginak ditu hamar bat maratoi. *"Soldaduzkatik bueltan, anaia eta biok maratoiak prestatzen hasi ginen. Urtero joaten gara Donostiakora, eta Madrilekoa ere egin izan dugu"*.

Euren kontura egindako prestakuntza, errepide bazterretan hiruzpalau egun astero. *"Irteten garen bakoitzean, ordu t'erdi inguruko saioak egiten ditugu. Serioski entrenatu beharra dago, maratoia ez bait da txantxetako gauza. Hogeitapiku kilometroak pasata gero, gorputz osoa minduta. Bukatzea nahi duzu soilik, bukatzea..."*.

Nolatan eusten dion sufrimentu horri. *"Egia esan, ez dakit. Ez dakit"*.

Lumak urtero egin ohi ditu Hiru Handiak; Gorbea, Anboto eta Aitzgorri egun berean igo eta jaitsi. *"Irteera polita izaten da. Mendizale mordoa elkartu, giro polita, saltsa ederra. Dena den, azken urteotan erlojua bihurtu da garrantzitsuena, ea nork egiten duen azkarren, nork lehenengo bukatu"*.

Horixe da, hain zuzen ere, mendizale eta bestelako kirolariei nabari dien ezaugarri makala. *"Nire ustez, jendea astakeriak egiten hasia da; gainditu ezinezkoak diren mugetatik geroz eta hurbilago..."*.

Lumari berari ere parean tokatu zitzaion esperientzia gogorra biziztzea, Gabonetan, Aconcaguan. *"Historia horiek ahaztu egin behar dira, eta ahal den neurrian, berriz antzekorik etor ez daitezen, gertatutakoetatik ikasi"*.

Eta hain zuzen ere, etorkizunerako ametsak borobiltzen dihardu. *"Beti inguru hauetan ibiltzeaz aspertu ere egiten zara. Betiko ametsa izan dut Himalayara joatea, hango mendiak egitera, baina zail samarra ikusten dut. Diru asko behar da, eta denbora...halere, oraindik ez dut esperantza galdu"*.

Noski. Itxaropena, galdu behar den azken gauza delako!

**Voleibol jaia**
Larunbatean antolatuko dena, Zaldibarko pilotalekuan, goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte.

**Saskibaloi Txapelketa**
Larunbatean, goizeko 10etatik aurrera, emakumezkoen lau talderen arteko Saskibaloi Txapelketa egingo da kiroldegian.

**Futbola Atxabalpen**
Larunbatean, goizeko 10etatik aurrera, Arrasateko Futbol Koparen finalak jokatuko dira Atxabalpen, alebin, benjamin eta haur mailatan.

**Txirrindulari lasterketak**
Alde batetik, larunbatean alebin, benjamin eta haur mailako neskamutikoentzat antolatuko dena. Irteera arratsaldeko 4etan, Udala plazan.

Eta bestetik, 1. eta 2. mailako afizionatuek astelehenean korrituko duten San Juan Saria, goizeko 9.30etan hasita.

**Zaldibarren futbitoa**
Igandean, lau talderen arteko futbito txapelketari ekingo diote Zaldibarren, goizeko 10.30etan. Finala, astelehenean, 11.30etan.

**Xake partidak**
Astelehenean, goizeko 9.30etatik aurrera, aldibereko xake partidak Sebero Altube plazan.

**Pilota partiduak**
Asteartean, 6.30etan, pilota partidu ikaragarriak Zaldibarren. Teloneroan, Langaran Reyesen kontra; eta estelarrean, berriz, Xipri Txispasen aurka.

COMERCIAL TERRESTRE MARITIMA
TRANSPORTES
ARANBURU COTEMAR
Garraio agentzia
ATA
Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ARTE LENIZ
koadro eta moldurak
Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

# Saihesbidea bai, baina...

Zorioneko saihesbidea martxan dago azkenean. Eta herri barruan igarri da, noski. Hain kargatuta zegoen herri barruko trafikoan derrigorrez igarri behar. Beste kontua izango da ea herria igarotzen duen trafikoa arintzeaz gain, herriko auzoen arteko komunikazioa zenbateraino hobetuko duen. Baina ez noa gaur horretaz aritzera, saihesbidean bertan dagoeneko nabaritu ditudan akats edo hutsunei buruz baizik.

Lehenik, Eroski pareko bidegurutzea aipatu nahi dut. Nahita ere, nekez asma zitekeen gauza korapilatsuagorik. Ez da batere erraza zein bide hartu behar den, edo non eta nori pasoa utzi behar zaion jakitea. Zubirik gabeko gurutzeak bait dira arriskutsuak, baina hor antolatu den saltsarekin ez dut uste denbora luze pasatuko denik lehenbiziko istripua gertatu baino lehen. Eta ez nuke "gafe"arena egin nahi...

Herrigarria egin zait, bestalde, Aretxabaletatik Bergararanzko norabidean batere irteerarik ez egotea. Norabide horretan, saihesbidea aurrera doanarentzat bakarrik geratzen da, herriko edozein puntutara datorrena lehen bezala herri barrutik ibiltzera derrigortuz.

Saihesbiderako sarreren artean, Bedoña aldekoa oso txapuzeroa iruditu zait. Bedoñatik behera datorrenak, sekulako aldapa izateaz gain, puntu xelebre batean egin behar du stop, nahiko gaizki markatuta dagoen puntuan gainera. Berriro istripurako arriskua...

Azkenik, saihesbidearen estutasuna. Mendia jaten lan txarra zegoelako izango da, baina saihesbidean juxtu kabitzen dira martxan doazen autoak. Bateren bati gelditu beharra suertatuz gero, ez du leku aproposik aurkituko eta atzetik datozenak argi ibili behar istripurik gerta ez dadin. Aparte, oinezkoei ez zaie inongo aukerarik gelditu pasealeku ederra izan zitekeena aprobetxatzeko. Behin lanean hasiz gero, kontuan hartzekoa izan zitekeen ibiltarien komenientzia, baina hurrengoari itxaron beharko.

Oro har, saihesbidea kaskarra da, oso plateamendu motzekin egina dagoela igartzen zaio. Orain hamabost urte egin izan balitz barkatzekoak izango ziren akats horiek, baina orain... Gauzak hobetuko ditu lehen oso gaizki zeudelako, baina ez da inor arro sentitzeko modukoa. Ez horixe!

*Mikel Intxausti*

AE ELKORO

AE
Magdalena 29-31,
Tfnoak: 79 18 86 - 79 45 99
ARRASATE

TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKOA

BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY

AE
Garibai 10,

ETXEKO TRESNAK
ARGITERIA




SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA

# ARRASATEko UDALA

Udal Plenoak, 1990eko ekainaren 1ean egindako ohizko bilkuran, hartutako akordioen laburpena.

• Gamei, S.A. enpresak egin duen U.13.3. Unitatean dauden lurren lagapenari onespena ematea.

• OMU, S.L. enpresak egin duen (Meatzerreka Auzoa) S-15 Sektorean dauden lurren lagapenari onespena ematea.

• Umezaintza Koop. Elk.ak sustatuta (San Josepe) A-11 Arean Udal Planeamunduko AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Testuari behin-behineko onespena ematea.

• Kobate inguruan eta S.1 eta S.2 Sektoreetan Udal Planeamenduko AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Testuaren aurrelaburpena onartzea.

• Lau-Kale, S.A. enpresak aurkeztuta, (Roneo-Biteri) U.13.1 Unitatean Estatuen Proiektuari eta Iharduera-Oinarriei Hasierako onespena ematea.

• Asunción Mojatxekoak diren lursail batzuk erostea.

• "Kataide" taberna-jatetxea egokitu eta ustiatzeko Lehiaketa Publikoan agindu behar duen Baldintzen Plegua onartzea.

• Talleres Meca, S.A. enpresak tartejarritako 665/90 zenbakiko Errekurtso Kontenzioso-Administratiboan agertzea.

• "Copropietarios de Garajes Erguin" taldeak egindako lurren lagapenari onespena onartzea.

• Arrasateko "Abaroa" Jubilatu Etxearen Taberna-Saloia ustiatzeko eskubidea adjudikatzeko lehiaketa aginduko duen baldintza juridiko-ekonomiko-administratibo plegua onartzea.

• Arrasateko Udaleko lanpostuen Hizkuntz Eskakizunak onartzea.

• Arrasate Musikalekin Hitzarmen bat sinatzea, Udalak, dagozkion subentzioen bidez, urteko aurrekontuen defizitak finantzatzeko.

- 1) Mertzedarien Komunitateari Udalaren eskerrona agertzea, urteetan zehar Arrasaten egin duten borondatezko lan handiarengatik. 2) Mertzedarietako Zuzendaritza Nagusira idazki bat bidaltzea Iturbide Egoitzatik Komunitatea ateratzeko epea atzera dezaten eskatuz.

• Inmobilizazio-zerbitzua eskaini, bide publikotik ibilgailuak erretiratu eta hauek zaintzeko zerbitzua eskaintzeari buruzko Tasaren Ordenantza Arautzailea onartzea.

• Euskara hutsez ihardutea erabaki duten Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 27 Udalekiko elkartasuna adieraztea.

• Ertzaintzari buruz Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 18an hartutako akordioarekin bat egitea.

• Bakearen Nobel saria emateari buruz Eusko Legebiltzarrak urriaren 16an hartutako akordioarekin bat egitea.

• Alkatetzak emandako zenbait izandapen ezagutzea.

*Arrasaten, 1990eko ekainaren 5ean*

# Hizkuntz funtzioak

Hizkuntza batek izan ditzakeen oinarrizko funtzioak honako zazpi hauek dira:




Hizkuntza baten "status soziala" hizkuntza horrek betetzen dituen funtzioen araberakoa da. Zenbat eta funtzio gehiago bete, orduan eta "status sozial" altuagoa eta alderantziz. Garbi dago Europan prestigiorik handiena duten hizkuntzak, hizkuntza internazional bezala funtzionaten dutenak direla (Alemana, Española, Italianoa, Portugesa...) Hirugarren mailan aurkitzen dira hizkuntza nazional bezala funtzionatzen dutenak (Albaniarra, Estoniarra, Esloveniarra...).

Eta horrela jaitsiko ginateke funtzio familiarra besterik edo intimitate funtzioa besterik betetzen ez duten hitzkuntzetara, estatus sozial eskasena duten hizkuntzetera, alegia.

Hizkuntzen prestigioa, balio soziala denez, balioa ematen dion gizarteari loturik doa. Honela, errusiarrak 7. mailako balioa du Errusian edo Europan ekialdean, baina Europako mendebaldean 5. edo 6. mailaraino jaisten da.

Euskararekin ere antzeko zerbait gertatzen da: Euskal Herriko lurralde batzuetan 5. mailan kokatzen bada (hizkuntza nazional mailan), beste zenbait lurraldetan Nafarroako mendebaldean edo Iparraldeko barnekaldean, prestigio hori ez da 2. mailatik, hizkuntza familiarretik gora igotzen eta zenbait kasutan 1. mailan, azpi hizkuntza, kokatzen da.

Gauzak horrela, garbi izan behar dugu, hizkuntzak elkarren arteko gatazka batean murgildurik aurkitzen direla. Diferentzia bakarra zera da: zein mailatan gertatzen den gatazka hori. Frantsesak borroka egiten du ingelesarekin 7. mailan, hizkuntza internazionalaren lekua hartu nahian.

Euskara, Espainola edo Frantsesari dagokienez gatazka 4. eta 5. mailatan ematen ari da, hau da, hizkuntza nazionala edo lokala izatean dago arazoa. Euskarak, hizkuntza nazionalaren mailan kokatzea ziurtatu behar du, bestela hizkuntza lokalaren mailara jaitsia aurkituko litzateke, hots, dialekto mailara.

Horren ondorioak lirateke: kultur hizkuntza izatera iristeko bideak itxi egiten zaizkiola batetik; eta bestetik, gatazka 3. eta 4. mailatara pasatzen dela eta ondoren 2.era eta 1ra ordezkapen prozesu osoa burutu arte.

Honen ondorioz esan daiteke, edozein hizkuntz komunitatek, bizirik iraun nahi badu behintzat, bere hizkuntza, hizkuntza nazionalaren mailan kokatzea lortu behar duela.

*Atalataikoan*

**ARRASATEko UDALA**

Arrasateko Udalak aldi baterako ondorengo lanpostuak bete nahi ditu:
**2 administrari laguntzaile** eta
**jagoletza eta obra-kontrolerako laguntzaile bat.**

Eskabideak ekainaren 28a arte, eguerdiko ordubiak arte, aukeztu ahal izango dira.

Administrari laguntzaileari dagozkion ariketak ekainaren 29an egingo dira, goizeko 10etatik aurrera, Monterron Jauregian, izangaiek idazteko makina eraman beharko dutelarik.

*Arrasaten, 1990eko ekainaren 20an*
*ALKATEA*

# Alkohola gure artean

Orain artean, alkoholari buruzko hainbat argitasun eman dugu eta gaur, berriz, gure artean dauden ohiturak aztertzeko garaia heldu zaigu. Beraz, edateari dagokionez, zeintzuk dira gure herriko ohiturak?

Lehen tabakoarekin egin genuen bezala, ikus dezagun zein den, inkestaturiko gaztetxoen artean, familia barruko giroa edo ohiturak.

Taulan agertzen denez, familia guztien heren batean aitak eta amak edateko ohitura dute.

GURASOEN OHITURA ETILIKOA

| | AMAK BAI | EZ | EZ | DAKI | NOIZ BEHINKA |
|---|---|---|---|---|---|
| AITAK BAI | 320 | 226 | 3 | 181 | 730 |
| EZ | 15 | 77 | 0 | 9 | 101 |
| EZ DAKI | 0 | 2 | 0 | 1 | 3 |
| NOIZ BEHINKA | 3 | 52 | 0 | 57 | 112 |
| | 338 | 357 | 3 | 248 | 946 |

77 kasutan bakarrik agertzen da aitak eta amak ez dutela edaten. Emakumeen artean edateko ohitura dutenak herena baino pixka bat gehiago dira, %35,72 alegia; eta gizonezkoen artean, berriz, %77,17a. Beraz, ondorio gisa esan dezakegu, alkoholaren kontsumoa normala den ingurugiro familiarrean hazten direla gaztetxo gehienak. Ez dugu hemen neurria baloratzen, maiztasuna baizik. Honetaz gain, etxetik kanpo ere, haurrek txikitandik ikusten dituzte gazte eta helduak etengabe ardoa, garagardoa eta antzerakoak kontsumitzen. Guzti hau kontuan izanda eta giro honen barruan, erraz ulertuko ditugu hurrengo asteetan argitaratuko ditugun emaitzak.

Hemen Arrasaten tabernak, kafetegiak eta antzerakoak ehunkada bat dira; hor ditugu gainera txoko eta elkarteak, 200 biztanleko honelako saltoki edo establezimendu bat dagoelarik. Gainera, ez badugu ahazten hainbat lekutan edari alkoholikoak ere saltzen direla beste hainbat gauzaren artean, ondorio bezala hauxe aterako dugu: ingurune honetan jaio, hazi, garatu eta ez edatea bitxikeria dela. Gure artean normalena edatea da.

*Eukeni/Arantxa*



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

KÖMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

# Ekaitzaren osteko lasaitasuna



Orain ezkero joanak izango ditugu hanketako minak eta zauriak eta zihur aski berriz ere animoa goratu egingo zitzaigun datorren urtean ere hiru handiak egiteko. Arrasatearrok parte hartze ugaria eta itzela izan genuen, ugaria inoiz baino jende gehiago azaldu ginelako eta itzela gutatik askok amaitu genuelako. Parte hartze horri esker Besaide Mendizale Elkartea, bigarren gelditu da Elkarte Sailkapenean. Besaideko hogeitamaika bazkide heldu ziren amaierara eta Gasteizko Mendizale Elkartetik hogeitamabi, beraz pertsona baten aldea egon zen eta hain urria izan denez diferentzia, datorren urtean lehenengoko puestoa lortzeko planak gaur den egunetik egin behar izango ditugu.

Arrasatearren artean denetik izan da, badira batzuk larri heldu zirenak, beste batzuk ehundoko airosoen eta beste batzuk berriz, heldu ez zirenak ere.

Lehenengo arrasatearrak 17.05 ordutan heldu ziren arren, besteok edo gehienok 19, edo 20 orduen barruan izan ginen. Dena den, egon zen batenbat Aitzgorri jaisten galdu eta solorik solo ibili zena nondik nora jo jakin gabe, baina beronen alde esan behar, ez zuela horregatik umorerik galdu eta amaituta gero ere bazuela barriketarako gogoa.

Beste sail bati ebaturik, ona dela deritzot, euskararen presentzia gehitzea ibilaldi honetan, datorren urtean informazioa elebietara gutxienez bidal diezaguten eta hala eskatzen dugunoi diploma euskera hutsez, eta ez orain artean bezalaxe erderaz. Ez litzateke proposamen aldrebesa izango Besaideko zuzendaritzari eskatzea, bertan parte hartu dugunon firmak batu eta Gasteizera bidaltzea euskaldunak garen partez, hala tratatu gaitzatela eskatuz.

*Hankamotz*

RAFAEL LORENZO
KLINIKA DENTALA
MEDIKU ODONTOLOGOA
Zarugalde 3, 1. B
ARRASATE
Tfno. berria:
77 12 63

Eslu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

MA
ARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa
Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

PAZI-OLA SA
Zaldizpe kalea 2.
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

IRATI
Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

ARRASATE PRESS
Tfnoa: 77 08 15

# DENDARABA




# MERKATAL ZENTRUA

**Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ**



## Aste gazte

Ikusten duzuenez, oraindik agertzen da ekintza berriren bat edo beste udarako, baina ez pentsa denbora luzerik gelditzen denik erreserbak egiteko. Udalekuak, kanpamenduak edo beste ekintzetan parte hartu nahi izanez gero, mugi zaitez.

Gainean ditugun jaietan, bestealde, guk ere, ondo pasatzea opa nahi dizuegu, eta azterketak gelditzen zaizkuzuenoi, Zorte on!

### *Udako ekitaldiak*

• "Elkarraldia Artisuatzarekin?". Beiren (Nafarroa). 13 eta 16 urte bitartekoentzat. Iraupena: 15 egun (uztailak 31-abuztuak 15). Prezioa: 14.400 pta. Plaza mugatuak.

• Ibilbide Zikloturista, Nafarroako Iparraldetik zehar. 16 eta 21 urte bitartekoentzat. Iraupena: 17 egun (uztailak 20-abuztuak 6). Prezioa: 13.500 pta. Plaza mugatuak.

### *Ikastaroak*

• XVIII Udako Euskal Unibertsitatea: uztailak 16-28, Iruñean. Astebete eta bi astetako ikastaro ugari antolatu dira, holako arlo hauetan:

- Artea eta Komunikazioa
- Giza eta Gizarte-Zientziak
- Hizkuntzalaritza
- Natur Zientziak
- Zientziak eta Teknikak

Matrikula-epea: ekainaren 30era arte Prezioak:astebeteko ikastaroak: 8.600 pta. Bi astetakoak: 17.200 pta.

Prezio bereziak ikasle eta langabetuentzat. Arrasateko Udalak ikastaro hauetan parte hartzeko bekak ematen ditu (informazioa: Euskara Zerbitzuan)

• Adierazpen eta Sormen II Udako Ikastaroak: abuztuak 27-31, Bilbon. Ikastaroak: Dantza Kreatiboa, Antzerkia: beste joko bat, Txotxongiloa adierazpen bide bezala, Adireazpena Talde Dinamikan, Musika Heziketaren Arlo didaktikoak, Psikomotrizitatea, Clown-a, Munduko Dantzak, Saloi Dantzak, e.a.

Ikastaroen prezioa (orduen arabera):4.500 eta 9.000 pta. bitartekoa.

Matrikula-epea: ekainaren 30era arte. Plaza mugatuak.

• Sokorrismo eta Lehenengo Laguntzak Ikastaroa: 16 urtetik gorakoentzat, Arrasateko Kiroldegian. Ordutegia: arratsaldeko 7etatik 8etara. Hasiera-eguna: ekainak 27. Iraupena: 15 egun.

### *Lehiaketak*

• "Imagina ezazu Euskadi" III ekitaldia:

- Pintura: - Teknika: oleoa edo teknika mistoa

- Sariak: 1.) 1.000.000 pta. 2.) 600.000 pta. 3) 300.000 pta.

- Argazkigintza: - Zuri beltzean edo koloretan

- Sariak: 1.) 250.000 pta. 2.) 175.000 pta. 3.) 90.000 pta.

- Poesia: - Euskaraz nahiz gazteleraz.

- Lanek, gutxienez, 500 bertso osotuak

- Sariak (hizkuntza bakoitzeko): 1.) 275.000 pta. 2.) 150.000 pta.

- Ipuina: - Euskara nahiz gazteleraz, 10 eta 15 folio bitartekoak

- Sariak (hizkuntza bakoitzeko): 1.) 275.000 pta. 2.) 150.000 pta. Akzesitak.

Modalitate guztietako lanak aurkezteko epea: uztailaren 15era arte.

***Informazio gehiago:***
***Gazte Zerbitzuan, ☎ 77 00 65***

EGIDO Ordezko Piezak
Automobilerako ordezko piezak
Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

TEKLIN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
IZEN-DEITURAK.........................................
HELBIDEA.........................................
HERRIA.........................................
Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

"PAL"
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

## ETXEBIZITZAK

— **Bikote batek teilatupea edo pisu txikiren bat hartuko luke.** Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.

— **Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da.** Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.

— **Alokatzeko pisua behar dut Arrasaten edo Aretxabaletan.** Tfnoak: 79 13 95 eta 79 16 57 goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte. Flor Tellez.

— **Torreviejan bungalow-a alokatzen da** ekain, uztail eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47

— **Loramendi kalean 6.pisua salgai** 80 m2. Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsaldez)

— **Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da.** Tfnoa: 79 45 74.

— **Laredon apartamentua alokatzen da.** Informazio gehiagorako deitu 79 52 80 tfnora.

— **Pisu amueblatua behar dut alokariruan.** Dei 79 13 95 edo 79 16 57 tfnora astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik eguerdiko ordubietara. Flor

— **Neska ikasleak pisua behar dugu alokatzeko.** Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.

— **Pisua alokatzen da Erguinen.** 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 211225 10.00etatik aurrera.

— **Zarautzen udarako teilatupea alokatzen da, oso merke;** bost ohe ditu. Hondartzatik gertu. 13 07 90 Juanita.

—**Alde zaharrean etxe merkea erosiko nuke.** Dei goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.

## LANA

— **Neska euskaldunak etxeko lanak egin** eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gauez.

— **Latin klaseak ematen ditut.** Interesatuek 79 50 88 Tfnora deitu. Garbiñe.

— **Neska euskalduna behar da Donostiako etxalde batean.** Ez da bakarrik egongo. Soldata ona. Interna. Tfnoa: 40 00 86 bulego orduetan.

— **Gazte taldek pinudiak garbituko lituzke** edo antzekoak. Tfnoa: 79 97 84 Kazintxo

— **Umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke.** Mª Jesus. Tfnoa: 79 99 17

— **Emakume euskalduna etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 07 73.

— **Ikasle unibertsitarioak udako hilabeteetan edozein lan egingo luke.** 79 51 95 telefonora deitu.

— **18 urteko gaztea udako hilabeetan edozein lan egingo luke.** Tfnoa: 79 51 95.

— **Emakume euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuek 79 98 34 tfnora. deitu, arratsaldeko 13.00ak eta 16.00ak bitartean.

— **Eskoriatzan klase partikularrak.** Mailak: OHO kurtso guztiak. REM-BUP-UBI, euskarazko klaseak. Ek REM-BUP-UBI, euskarazko klaseak Ekaina, Uztaila, Abuztua. Arrazoia: Tfnoa: 79 17 19. (20.00-22.00 ordu bitartean)

— **1 REM-IEE (euskara)eko neskatilari natur klaseak emateko** pertsona behar da. Tfnoa: 79 39 49

— **Andra, 40-50 urte bitartekoa, etxeko lanak egiteko behar da.** Interna. Tfnoa: 79 16 63

## SALEROSKETAK

— **Bigarren eskuko argazki makina reflexa erosiko genizuke** prezio onean baduzu. Jabier 79 80 86

— **Opel Corsa GSI, SS- 2145-AF salgai.** Tfnoa: 79 46 41 Felix

— **Moto Guzzi 1000 California salgai.** Tfnoa: 79 87 62

— **100 W-ko Marshall kitarra anplifikadorea salgai.** 100.000 pzta. Tfnoa: 79 62 71.

— **Bizikleta bi salgai:** 1 paseokoa, 2 korre dorekoa: Orbea Altube, Rueda de 6000 berri berria. Tfnoa: 79 33 45

— **Kanping-denda familiarra eta kanpinerako hozkailua salgai.** Deitu: 79 24 66 Tfnora.

## DENETARIK

— **Irungo ikastolan kontratu finkoaz** lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin permuta egingo luke. Interesatuek dei dezatela tfno. honetara: 79 26 59

— **Edozein motatako liburuak forratzen dira,** liburutegikoak, hiztegiak, etab. Interesatuek deitu: 77 00 29 Josefa

— **Urtxintxako ikastarokoei:** dei iezadazu aste honetan, lanari buruz hitz egiteko. Tfnoa: 42 06 84. Albaro.

— **Laudioko ikastolan kontrato finkoaz lanean ari den andereño batek** Durango-Arrasate inguruko ikastoletako irakasleren batekin permuta egingo luke. Tfnoa: 94- 681 40 25

## ARRASATEN HILDAKOAK

**Inaxio Garitano Barrondo**
Ekainaren 16an. 78 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

**TESTUA:** ..................................................

..................................................

..................................................

..................................................

..................................................

..................................................

..................................................

**Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE**

**Tfnoa: 77 08 15**

Famauen ahotik

# Florentino Aiastui, San Jurgitik San Jurgira Afrikatik bueltan



*Hamazortzi urteaz Melillara soldau*

Aurretik gerra denporan, Zerrajeran pasau nittuan urte bi militarizaute, bestela soldau juen biheko nauela eta. Gero gerrioi akabau zanien juen ein biher... Hiru urte etorri barik ein gittuan Melillan "Artilleria Montaña"-n. Mulero egon nitzuan ni. Bakotxak mulo bana gaukan da egun guztien kataiak garbittu, mulue garbittu, baiñau eraiñ dde hola izen zuan gure bizimodu.

***Han gosie latza***

Han garbanzo moruno, torta moruna, boniatue ta halakuek jaten gittuan baiñe beti gosiek egoten gitzuan. Eta muluei gehixau gure jutziek hareik soldauei baiño, mulue ondo gorbernau biher eta emoaten gutzan algarroba eta gari urune eta arto urune nahastute ta guk ze eitten gaixuan...algarrobie gorde, ta haxe marra-marra jan. Gero larri ibiltten gitzuan atze-aurrok eitteko baiñe... Sikue zuan da gogorra, baiñe biheko jan. Kolkuek pe beteta ibiltten gittuan da gero formetan gittueinien, "¿Que lleva usté?. Ala, venga, a paso ligero." Pasoligeruoi ein dde aurrera. Hurrenguen be hartu ein biher gosie izaten zuan eta.

***Oin be hango kontuok danok ahaztute ez***

Han egon gitzenien hango errezo ta lixiba jotiok eta ikusi gittuan eta oin, bodatan ero hola juergan batetan juntetan garenien danak esaten "eee, bueno Florentino benga. Pañelue buruen ipiñi tte, manta zaharren bat jarri tte, han ikusittekuok beti zeozer ein biher. Aspaldixen makiña bat holako ein juau kuatrobienton da, San Ixidruetan. Urtero juntau izen gaittuk kuadrillie ta bazkaldu majo, ta ilunkerarako bete-bete ein dde norbaittek trajioi be beti izeten juan gertu te, dale, juerga.

***Juergiaz aparte lanien be artetsue***

Niri beti gustatu izen jatek hola harozteixa kontuek eta eittie eta etxerako erreminttak, burdi, artara, ta halakuek beti neuk ein izan jittuat. Aitte be horretaikue izen zuan, silla ipurdixek jarri tte ein be bai tte. Saldu sekule ez baiñe etxerako bihe dienak normalien neuk ein izen jittuat.

*Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai*

## Zelebrekerixak

Sartu da gaixo bat medikuan kontsultara. Errekonizidu dau eta esaten dotsa:

— Aspaldittik zabitz gaixorik?

— Bai jauna, eta mediku askokin ibili naiz gaiñera. Batzugandik etsipen be hartu dot, baiña oinddio nik bizi nahi neuke.

— Tabakorri asko erretzen dozu?

— Ez jauna, nere bizitza osuan eztot erre.

— Eta eran?

— Eran be ez.'

— Zuk igual larregi jango dozu.

— Ez ba, beti izan naiz jatun txikixa.

— Jokuan gehixegi egin eta erretiro txarrak izango dittuzu seguru asko.

— Ez ba jauna, sekula enaiz jokalarixa izan eta beti goiz ohera-tu naiz.

— Eta emakumiekin eta ibiltzen zara?

— Ezta pentsau be, eztaukat holako bizi txarrik.

— Orduan zuk ezer ez eittekotan, zertarako nahi dozu bizi?

*Juan Martin Elexpuru*

**Felipe Arrizabalaga**
aroztegia
Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**ALTUNA**
Lurrindegia
bisutegia
drogeria
Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23



*Arrieta familia 1917*

Iturriotz (lehen Resusta) kaleko Zentru Katolikoko lorategian atera zuten argazki hau Arrietatarrok. Aita, Ospitale Zaharreko administradorearen semea, **Domingo Arrieta** UCEMen zebilen lanean. Ohitura jakineko gizona zen. Goizeko 6.00etan jaiki eta Uribarriko ortura, hango lanak egitera. Zazpi t'erdietarako etxera itzuli, jantzi korbata eta guzti, eta mezatara. Armozau eta UCEMeko bulegoetara lanera. Bere itxurak salatzen duen bezala bizi guztian Sabino Aranaren jarraitzaile sutsua izan zen. Euskaraz idazten zuen. Ama, **Felipa Arregi**, etxekoandrea zen.

Umeei dagokienez, ezkerretik eskuinerantz, ezkerreko txikitxoa **Xabin** da. Gaztetan batzoki inguruan ibilia, eta UCEMen lanean. San Jose Kooperatibaren sortzailetakoa, azkenean Arrasate Kooperatiban sartu zen. Mondragoen bizi da, jubilatua.

**Maria** gazte zela, monja egin zen Merced ordenean. Orain Valentzian dago, Paternako berrabiltze zentruan lanean.

Erdian dagoena **Luis** da. Gaztetan Josulagunen Konpainian sartu zen. Hainbat urtetan, Tuterako ikastetxeko zuzendaria. Xabierren beste hamasei urte egin ondoren, orain Loiolan dago.

Aitaren altzoan, **Iñaki**. Honek ere UCEMen egin zuen lan, delineatzaile. Geroago Gabai tailerrean ibili zen, Iturripe ondoan. Orain Gasteizen bizi da, jubilatua.

Arrietarrek, argazkian azaltzen ez diren beste bi seme-alaba izan zituzten: Miguel eta Carmen.

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

APOTZAGAN

S. Migel jatetxea

Egunero arratsaldeko 7etatik zabalik

Tfnoa: 77 04 94 / 79 83 93

# Errota zoroa

Azalpenek 6 letrako hitzak adierazten dituzte. Hitzak zentrotik kanpoaldera nahiz kanpotik zentroaldera joan daitezke. Hau da, erdiko A hitzen hasiera zein bukaera izango da. Hitz guztiak kokaturik, kanpoaldeko letrak irakurri eta mezu izkutua agertuko zaizu.




1.- Hauxe da
2.- Txurikina
3.- Arrain arraultze
4.- Euritako
5.- Zerrama
6.- Laborantza tresna
7.- Eliza txikia
8.- Zelaia
9.- Zaila
10.- Ahuntzaren arra
11.- Irekia
12.- Adoretsu
13.- Lats, ibai txikia
14.- Ehea, garbikaria
15.- Aipu egin
16.- Esangura

**Mezuaren gakoa**: *Berrehun gudari oro sumin... Ordutik hona Nafarroan ez da aberririk.*

*ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin*


ALE S.A.
Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**
**Otzaratzarrak**
**Giltzak gordetzeko armairuak**
**Erremintak eramateko gurdiak**
**Erremintak gordetzeko armairuak**
**Lan egiteko aulkiak**

Zunbeltz
Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA

## BIZITZA ETA EGARRIA

Edalontziari so eginez ematen du bizitza,
egarriak benetan eskatzen diona atzeratuz
behin eta berriz,
beti aurkitzen bait da botila berririk,
likore ezezagunik edo
nahasketa exotikoren bat,

Eztarriaren estualdiak lasaitu egiten du
apur baterako,
eztarriko zartadek goldaren ildoekin duten antzak
lurrarekin lotuago edo sentiarazten bait du.

Edalontziari begira ematen du denbora,
denborak benetan eskatzen diona atzeratuz,
behin eta berriz,
bizitzak eskatzen diona ez bait da alkohola,
bizitzak damaiona ez bait da egarria.

*Edozein*

MIKEL LASA
ASEGURU ARTEKARITZA

ASEGURU ARTEKARIA

Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tlfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

■ **"Penalty morala"**. Holanda Egyptoren aurka ari zen jokatzen, Txistularia, Sanchez Aladren, espainiarra, Afrikarrak oso ondo ari ziren eta holandarrak, duten kalitatea erakutsi ezinik. Halako batean, egytiar batek baloi aurreratua hartu eta ospa, laranjadunei bizkarra erakutsiz, arerioaren aterantz txistu bizian. Koemanek, ezin harrapatu eta elastikotik oratu zuen mutila, holandarren area txikian sartu aurretik. Jausi, hori bai, area barruan jausi zen. Argi zegoen ez zela penalty, eta errepikaldiek baietsi zuten hau.
Garrantzizkoena ez da arbitroak huts egin zuela, edonork egin bait dezake hori, baizik eta TVEko esatariek behin eta berriro ondo pitatutako pentaltya zela ziotela, "penalty morala" zela eta. Epailea espainola zen eta, denon begiek besterik ikusten bazuten ere, konbentzitu nahi gintuzten oker ikusi genuela.
Gero gerokoak etorri ziren zeren Sanchez Aladren jaunak Mundu Txapelketa horretan egiten zuen bigarren hankasartze handia zela eta, etxera bidali dute. Ez da harritzekoa. Harritzekoa, TVEkoek ez dutela antzerakorik egin beren esatari txobinistekin.

■ **UER.** Batek baino gehiagok galdetuko du zergatik den inportantea Europako Irrati-Telebisten Elkartean (UER) egotea. Munduko Futbol Txapelketak abidibe argia ematen digu.
UERen dauden telebistek soilik eman ditzakete Italia 90eko partiduen irudiak. Beste guztiek jai dute. Frantziaren kasuan, hiru dira UERkide diren telebista kateak -pribatu bat eta bi gobernuarenak- eta hiruren artean banatu dituzte erretransmisioak.
Estatu espainiarrean, aldiz, RTVEk ahaleginak eta bi egin ditu orain arte telebista autonomikoak UERen sar ez daitezen, eta, Estatu mailan ordezkari bakarra denez, Munduko Futbol Txapelketaren irudien monopolioa du.
Pentsa ezazue zenbat milaka milioi boltsikoratuko dituen dirutan, kontuan izanda Munduko Txapelketak erakartzen duen ikuslegoa -1.200 milioi ikuslek ikusi omen zuten lehen partidua mundo zabalean- eta hilabete osoz luzatzen dela.
Hilabete horretan zehar, beste kateek harripetan bilatu beharko dute publizitatea, iraungo badute.
PSOEk orain arte izendatu dituen RTVEko zuzendari guztiek agindu bat jaso izan dute besteak beste: Euskal Telebista edo bestelako katea autonomikoen sarrera UERen eragoztea, kosta ala kosta.

*Joxe Aranzabal*

## bideoak




**Su santuak**

Zarathustrak, bere arimaren begiekin Ahura Mazda Jainkoaren jakinduria, Jainkoen izpiritua ikusten omen du sugarretatik igotzen. Zarathustrak sugar distiratsuei begiratzeko eta pentsamendurik onena, hitzik onena eta ekintzarik onena hartzeko gomendioa ematen digu.

## OSTADAR IRRATIA
**(102 F.M)**

**Ostirala**
3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)
**Azteazkena**
4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)
**Osteguna**
1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

## gusto baduzu

■ **Karlistadaren kronika:** Jose Maria Tudurik zuzendutako filmea, ostiralean, 21.15etan.

Polikarpo egunkari bateko zuzendaria dugu; Iñaxio, berriz, karlista izandako baserritar gipuzkoarra. Elkartu, eta gaztaroko abenturak oroitzen hasten dira.

Antzezle lanetan Paco Sagarzazu, Ramon Agirre, Rafael Enrique eta Patxi Barco.

■ **Aho biko ezpata:** Larunbatean, 16.20etan, Mario Caianok zuzendutako pelikula. Antzezleak R. Cameron, Angel Aranda eta H. Frank.

Patt Garrett sheriffa ezkontzen den bitartean, bi gizonek bankuko dirua lapurtu, eta kutxazaina eta zuzendaria tirokatzen dituzte. Garrett sasoiz heltzen da zuzendariaren hitzak entzuteko, eta iheslarien arrastoa jarraitzeari ekiten dio.

■ **Hego Pazifikoko perla:** Asteburuko filme emanaldiekin bukatzeko, igandean, 15.25etan, Allan Dwanen pelikula. Antzezleak Virginia Mayo, Dennis Morgan eta David Ferrar.

Emakume eder baten eta bi gizon diruzaleen istorioa dugu. Goleta baten irla galdu batera abiatzen dira, bertan dirutza handiak eta perla beltzak daudela dakitelako.




**M**iramonera ETBren estudioetara joan ziren **Patxi Montero** eta **Mikel Irizar**, **Pepe Arregirekin** batera. Kontatu digutenez, ETBko zuzendariek sekulako eskaintza egin diete ATB utzi eta ETBra joan daitezen *Musikantoi* egitera. Milioi askotako kontratoa eskaini omen zieten, baina gure lagunek ezetz, eurak ez doazela hemendik. Argazkian, ETBk eskainitako kontratoa apurtzen. Hori dok eta!

ATB
ARRASATE TELEBISTA

asteko
## PROGRAMAZIOA

**23 LARUNBATA**
12.30 **San Juanak 90**
18.00 **San Juanak 90**

**24 IGANDEA**
12.30 **San Juanak 90**
18.00 **San Juanak 90**

**25 ASTELEHENA**
12.30 **San Juanak 90**
18.00 **San Juanak 90**

**26 ASTEARTEA**
12.30 **San Juanak 90**
18.00 **San Juanak 90**

**27 ASTEAZKENA**
20.00 **Berriak.**
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, mahaingurua. Jose Mari Velez de Mendizabalek aurkeztua. Gaia: Ikasturtearen amaiera. Gonbidatuak: gazteak.
21.15 **Berriak** (errepikaldia)

**28 OSTEGUNA**
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.30 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
20.00 **San Juanak 90** (larunbat goizeko saioa)

**29 OSTIRALA**
20.00 **Berriak**. Koldo Rodriguezek aurkeztua.
20.20 **Erretratoa**. J.R.Elortzak zuzenduta. Gonbidatua: Eugeni Bengoa, Zeziaga dendakoa.
20.50 **Musikantoi**. Mikel, Patxi, Pepe eta Asierrek egina. Primizia mundiala aurkeztuko dute: Negu Gorriak (Fermin eta Iñigo Muguruza eta Kaki Arkarazo) talde berriaren lehen bideokliparen aurkezpena! Adi egon zeren bikaina da eta, benetan.
**Berriak** (errepikaldia)

**30 LARUNBATA**
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)

**A**gindu bezala, eta eguraldiak lagun, San Juanetan zehar egunero lau orduko emanaldiak eskainiko dizkizuegu zuzenean, Sebero Altube plazatik. Larunbat, igande, astelehen eta asteartean, eguerdiko 12.30etatik 14.30etara eta arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara. Elkarrizketa eta ikuskizunak bizi-bizian. Ondo pasau!






**D**atorren astean, hilak 27, egingo den *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan Ikasturtearen amaieraz hitz egingo da. Gonbidatuak gazteak izango dira, baina adi besteok. Egun horretan programara deitzen duzuenon artean TXANPA dendak eskainitako **irristola zozkatuko da.** Telefonoak 77 05 65 eta 77 09 40 dira.


BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa 79 04 28



## ARIES
**Martxoaren 21etik**
**Apirilaren 20ra**

Nahiko aldrebes ibiliko zara Aries, esan ez beharrekoak esango dituzu, eta bakarrik sentitzea ere suerta liteke. Kontuz egitera zoazen erosketekin, premiazkoa duzuna baino ez erosi.



## TAURUS
**Apirilaren 21etik**
**Maiatzaren 20ra**

Aste latza datorkizuna Tauro, jota egongo zara fisikoki eta ez oso adoretsu moralki. Ahal duzun neurrian atera ezazu eginbeharra aurrera; halaere maitagarria izaten jarraitu.



## GEMINI
**Maiatzaren 21etik**
**Ekainaren 20ra**

Zuhur jokatu beharrean zaude, batez ere merkataritzan bazabiltza, tentuz ibiliz gero aterako diozu etekinik. Sendo zaude eta arazoak aurrera ateratzeko behar adinako animoa izango duzu.



## CANCER
**Ekainaren 22tik**
**Uztailaren 22ra**

Poliki baina ondo beteizu lana. Familiarteko harremanak gora-behera ugari izango ditu, beren beharra izatetik pikutara bidaltzeko gogoa izatera derrepentekoa izango bait da.



## LEO
**Uztailaren 23tik**
**Abuztuaren 23ra**

Ez zaizu batere komeni inorekin hartuemanik etetea, arazo horiek kilikolo bait daude oraindik eta ezin izango dituzu zeuk bakarrik atera aurrera. Diru aldetik makal zabiltza, baina osasuna hobetuz doa.



## VIRGO
**Abuztuaren 24etik**
**Irailaren 23ra**

Lanen baterako aukera suerta liteke Virgo, psiko osasuna orekan izatea komenigarria litzateke horregatik. Baliteke familiak trabaren bat jartzea baina ez egin jaramonik. Zeure bideari jarraitu.



## LIBRA
**Irailaren 24etik**
**Urriaren 23ra**

Ez da lasaitasuna aurkitzeko asterik aproposena oraingoa, bai lanean bai pertsona mailan eragozpen ugari suerta litezkeelako. Bizi izateko osagarriak bailiran har itzazu. Kontuz nerbioekin.



## SCORPIO
**Urriaren 24etik**
**Azaroaren 22ra**

Edozertarako gogo bizia azalduko zaizu, baina ezin izango duzu dena aurrera atera. Lagunik badaukazu, ez espero haren laguntzarik zorokeriak iruditukо bait zaizkio asmo horiek.



## SAGITARIUS
**Azaroaren 23tik**
**Abenduaren 21era**

Eutsi zeure gizalegeari ez zaitez atera ziritik. Ezitzu energia guztiak lanean utzi, hortik kanpó izango duzu non utzirik eta. Hasi berri duzun erromantze hori ez da oso aproposa.



## CAPRICORN
**Abenduaren 22tik**
**Urtarrilaren 20ra**

Familia eta senitartekoek trabak baino ez dizkizute jarriko; ez ezazu zure eritzirik azaldu ezertarako, lasai egon daitezen bakarrik eskatu, zure esku egongo da inguruko giroa baretzea.



## AQUARIUS
**Urtarrilaren 21etik**
**Otsailaren 19ra**

Besteei zeure arreta eskaintzea da aste baketsua pasatzeko aukera bakarra; bakarrik eta nahigabetuta sentitzen bazara, zeure barnetik aterako duzu behar izango duzun indarra.



## PISCIS
**Otsailaren 20tik**
**Martxoaren 20ra**

Ez espero zure eginbeharra inork egingo duenik. Barruko egonezina baretzeko primeran etorriko zaizu lan fisikoa, ea geldotua daukazun gorputz hori astinduren bat emanez bizitzen den.


**ARRASATEko UDALA**

**EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK**

**Arrasateko Udalak euskara ikasten ari diren arrasatearrentzat bekak ematen ditu. Argibide gehiagorako dei 79 09 00 telefonora edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.**

*Arrasaten, 1990eko ekainaren 15ean*




# GK TXARTELA

## Aldean eraman aldiro

Gipuzkoako Kutxaren GK Txartela eraman behar da aldean, eguneraturik egoteko.
Gipuzkoako Kutxaren Kutxazain Automatikoetan erabateko erosotasunez iharduteko.
Edozein dendatan aldean eskudirurik eraman gabe ordaintzeko.
AZ Bulegoetako zerbitzuez baliatzeko.
Era automatizatuan eta ordutegi zabalagoan.
Eta diru-arazorik gabe bidaiatzeko.
GK Txartela.
Aldean eraman aldiro.

GK: GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

© Publis

MRW
WORLDWIDE COURIER

# HIRI ETA ESTATU BARNEKO ETA NAZIOARTEKO BIDALKETAK

**ALBACETE**, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torrevieja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Ecucenter. T. 96-571 73 91- **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido,** Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huercal Overa,** Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-21 12 67 - **BADAJOZ**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito,** San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA,** Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca,** Edisson, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor,** Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza, E**spaña, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera,** Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela,** Camí d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón,** Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorias Urbanas: Feria de Muestras,** Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa,** Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa",** Diagonal, 635 - **Cristal,** Gran Vía, 1176 bis.- **Jonqueras,** Jonqueras, 2 - **Mercurio,** Vía Augusta, 59 - **Nervión,** Vía Layetana, 20 - **Windsor,** Vía Augusfa, 2 - **Financia,** Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón,** Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor,** Meridiana, 354 - **Padilla,** Padilla, 205 - **Carlos III,** Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umbert, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventallo, 87 . T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia,** De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4.Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.,** Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25, . T. 93-885 62 50 - **Villafranca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - Receptorías Urbanas: **Feria de Muestras,** Zona Servicios - **Cámara de Comercio,** Alameda Recalde, 50 - **Bermeo,** Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica,** Bº. Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.,** Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11- **LAS PALMAS,** San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés,** Centro Comecial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Vall de Uxó,** Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL,** Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas,** Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6 . T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16 . T. 981-32 02 00 - **Santiago C.,** Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T: 966-22 92 21 - **GERONA** - Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge María, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972- 88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA,** Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárrega**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella,** Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41 . T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía,** Gran Vía, 67 - **Indubuilding,** Vía de los Poblados, 9 y 11 - **Nº. 3.** Sor Angela de la Cruz, 24 - **Nº. 4,** Cedaceros, 9 - **La Caixa,** Pº. Castellana, 51 - **División Internacional:** Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25,8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda,** F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando,** Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n, L.3C. T.-952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparil, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**., Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocío, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Perlora, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Díaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalin,** Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Villagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro,** Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN,** Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquizu, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n, Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celedonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega,** José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28, G.C. Loc. 10 - T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2:** Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios,** Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27, T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposta,** Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D 8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - Receptorías Urbanas: **Feria de Muestras,** Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alcira**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandía**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente,** Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA

* Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)

* Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)

- ESTATU BARNEKO ZERBITZUA

* Gau eta egun

- NAZIOARTEKO ZERBITZUA

* Courier zerbitzua

* Aire-karga zerbitzua

* Itzulpen zerbitzua

**ARRASATE**

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

**EIBAR**

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

**AZPEITIA**

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

**DURANGO**

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

## INFORMAZIOA
## 900 300 400

ACCA -ko kide

MRW WORLDWIDE COURIER

-ko kide